

artelka



فلسطين
حرّة

—Palestina okupatu zuten, bertan ezarri zuten euren bizilekua, palestinarren garbiketa etnikoa gauzatuta horretarako: beraien lurraldetik eta herrietatik kanporatu, herriei su eman, eta kartzela erraldoietan konfinatu. Historialari desberdinek “sortzaileen kolonialismoa” edo “populatzaileen kolonialismoa” deitu izan diote horri. Gaztelaniazko “colonialismo de pobladores” adieraren itzulpen posibleak dira biak: sortzaileena, “nazio” berri bat sortzen dutelako; populatzaileena, kolonialismo horrek ez duelako nazio bat “kanpotik” menderatzen, eta herrialde bat okupatzen duelako nazio berri bat sortzeko eta zegoena kanporatzeko, bortizkeriaren eta erailketaren bitartez.

Edulikia

6

10

20

42

62

EDITORIALA

Arteka

**Baldintzarik gabe,
Palestina askatu!**

ERREPORTAJEA

Eneko Carrión

**Indarkeria eta esplotazioa,
txanpon beraren bi aurpegi**

ERREPORTAJEA

Arteka

**Western bat Ekialde
Hurbilean: mende bateko
kolonizazioa Palestinan**

KOLABORAZIOA

Unai Ibarra

Giltza eta harria

ERREPORTAJEA

HISTORIA

Borja Carretero

**Estatu sionistaren
hastapenak**

Baldintzarik gabe, Palestina askatu!

Editoriala

Ohitura txarra dute nazionalistek: nazio bat sarraskitzen ari diren bitartean, errealitate gordin hori erabiltzen dute beren nazionalismo propioa indartzeko. Elkartasuna “bidaltzen” diote eraso jasaten ari den herriari, baina nazioaren izenean egiten dute eta beren nazioaren lehentasunezko izaera azpimarratuta, elkartasun keinu horretan.

Esate baterako, Gernika-Palestina ekimenak, Gazako sarraskia eta Gernikako bonbardaketa berdintzea du helburu, edo Palestinako herria pairatzen ari den genozidioa erabiltzea gogorarazteko euskal nazionalismoak, elkartasuna bidaltzen baldin badu, ez dela elkartasuna ulertu izan den era okerrean, hau da, modu altruistan; baizik eta are okerragoa den forma berekoian: babesa adierazten dizut, hitzez soilik bada ere, zure egoera nire onurarako instrumentalizatu ahal badut.

Jarrera hori ez da soilik “herri-ekimenen” arlo kulturean izaten, jakina. Bere adierazpenik tris-teena aurkitzen du estrategia politikoetan. Herri palestinarrari elkartasuna adierazi, soilik norbera-ren interes nazional partikularretarako baliagarria bada, eta, gainera, herri palestinarentzat soluzio bat eskatu, soilik norberaren bide parlamentarista eta itun bidezkoa-demokratikoa indartzen baldin badu. Edo herri palestinarrari elkartasuna adiera-zi, bere desagertpena bidean jarri duen estrategia babesten den bitartean.

Nazionalismoaren antinomiez aritu ginen *Arteka*-ren 34. zenbakian. Aipatu berri duguna ere bada nazionalismoaren antinomia bat: herrien arteko el-kartasunak lekua du, soilik elkartasun hori printzi-pio unibertsal gisa hausten duen errealtate nazio-nalista baztertzailaren mesederako bada. Hau da, “herrien biziraupena” delakoak, edo nazioen bizi-raupenak, ez du printzipio unibertsalik, norberaren nazioarekiko menpekotasunetik formulatzen bada. Nazionalismoak bere nazioaren biziraupena bera kolokan jartzen du horrela, egiazki horren atzean indartsuagoak diren erdi-mailako klasearen inte-res partikularrak (demokrazia eta instituziogintza burgesa, estatus politikoa eta soziala, pribilegio metaketa...) ezkutatzen baitira, zeintzuk nazioaren kontzeptu inklusiboarekiko kontrajarriak baitira.

Azken batean, errealtate desberdinen berdinketa bat izan behar da, Euskal Herria eta Palestina kontzeptu berdinenaren pean alderatu ahal izateko, eta azkeneko horren sarraskiak lehenengoaren “ideia” indartu ahal izateko. Nazio-eraikuntzak hori du: berdinketa-prozesu horretan, ezinbes-tean, bestearen berezitasuna ukatu behar duela, bestea desagertpena kondenatzeraino. Hau da, berdinketa-prozesu horrek berdinketa gauzatzen duen nazionalismoaren errealtatera moldatzen du nazio erasotua, pairatzen ari den erasoa bera desitxuratuz

Errealtate desberdinen berdinketa bat izan behar da, Euskal Herria eta Palestina kontzeptu berdinenaren pean alderatu ahal izateko, eta azkeneko horren sarraskiak lehenengoaren “ideia” indartu ahal izateko

Nola ez da ba posible izango bi estaturen bidez-ko soluzioa Palestinarentzat, hori baldin bada Men-debaldeko begirada arrazistarentzat ekintzarako markorik legitimoena; hots, Europako demokrazia parlamentarioarena?

Edonola ere, soluzio politikoei euskarri teoriko bat behar dute. Kasu honetan, berdinketa, ezinbes-tean, kolonialismoaren kontzeptuan gauzatu behar da. Izan ere, euskal nazionalistentzat, Euskal Herria eta Palestina, biak ala biak, dira nazio kolonizatuak. Bada Euskal Herriko Mugimendu Sozialistaren po-sizioa kontraesankorra dela esan duenik ere, ustez Euskal Herriaren izaera kolonizatuak ukatzen due-lako, Palestinari kolonizatuak izatea aitortzen dion bitartean; azkeneko hori, antza, ekonomikoki kolo-nizatuak ez dagoen arren. Hori egia balitz ere, azke-neko auzi hau ebazteke legoke: biak, Euskal Herria eta Palestina, zentzu ekonomikoan kolonizatutako nazioak ez badira, zein da zentzu politikoan duten izaera kolonial berdina?

Palestinaren kolonizazioaren ardatz nagusia ez da kolonialismo ekonomikoaren arabera azaltzen, jakina. Baina horrek ez du esan nahi kolonialismo ekonomikorik ez dagoenik: Israelek okupatutako Palestinan bizi diren palestinarrek ez dituzte okupatzaile sionistek dituzten eskubide berdinak, ez eta sionismoa babesten ez duten judutarren berdinak ere. Hor existitzen den kolonialismo ekonomikoa ukatzea, israeldarrek Palestina okupatu gabe dutela esatea bezala da. Izan ere, zer da ba kolonialismo ekonomikoa, ez bada biolentzia politikoaren bitartez herrialde arrotz batek beste herrialde batean gauzatzen duen esplotazioa? Ez al dute hori egiten sionista israeldarrek palestinarrei eskubide ekonomiko berdinak aitortzen ez dizkietenean?

Bada, Euskal Herria eta Palestina, zentzu ekonomikoan ere, ezin dira berdindu, Palestinan egon badelako kolonialismoaren arabera aztertu daitekeen egoera ekonomiko bat, Euskal Herrian ez dagoena —nahiz eta jatorri desberdinen arabera segregazioa egon, baina hori beste kontu bat da eta beste errealitate eta printzipio batzuen arabera gertatzen da, eta, seguru asko, ez luke euskal herritartasuna leku onean utziko—. Horrek bakarrik justifika dezake, beraz, ikuspegi eta esku-hartze politiko desberdindua.

Baina desberdintzeko arrazoi gehiago daude, eta horiek ukatzeak dakartzan ondorio politikoak ez dira kolonialismo ekonomikoaren ukazio ezjakinarenak bezain onberak. Izan ere, Euskal Herria eta Palestina kolonialismo politikoaren eta kulturalaren esparruan berdindu nahi izateak ukatu egiten du palestinarrek bizi duten infernua: eta ez sarraski-guda etnozidak eztanda egiten duenean soilik, non milaka eta milaka palestinar erail eta haien etxeak suntsitzen dituzten; ez soilik egunerokoan bizi dituzten kontrolak eta biolentzia militarra. Palestinarren gaitz nagusia ukatzea ere bada: Nakba, palestinarrek euren lurraldeetatik kanporatzeko estrategia planifikatua. Eta hori palestinarren historia eta existentzia ukatzea da. Ukazio hori ez da ezjakintasunari lotutakoa bezain onbera, benetan krudela izan behar delako, muturreko nazionalista, egunero begien bistan paratzen zaigun palestinarren infernua euskal herritarren egoerarekin alderatzeko.

Palestinaren kolonizazioaren ardatz nagusia ez da kolonialismo ekonomikoaren arabera azaltzen, jakina. Baina horrek ez du esan nahi kolonialismo ekonomikorik ez dagoenik: Israelek okupatutako Palestinan bizi diren palestinarrek ez dituzte okupatzaile sionistek dituzten eskubide berdinak, ez eta sionismoa babesten ez duten judutarrenen berdinak ere

Eta ez, infernu hori ez da Palestinan hedatu erresistentziak okupazioari aurre egin diolako. Hori palestinarren gaitza palestinareei egozte bezala da. Are gehiago, tamaina horretako teoria inozo batek azaldu beharko lukeena ez da kausa-ondorio hori (erresistentziak handitzen du eraso), kausa bera baizik: zergatik dituzten palestinarrak erresistentzia nazionala forma militarrean antolatzeke indarra, baliabideak eta baldintzak, eta Europako nazio zapalduak ez

Eta ez, infernu hori ez da Palestinan hedatu erresistentziak okupazioari aurre egin diolako. Hori palestinarren gaitza palestinareei egozte bezala da. Are gehiago, tamaina horretako teoria inozoak azaldu beharko lukeena ez da kausa-ondorio hori (erresistentziak handitzen du eraso), kausa bera baizik: zergatik dituzten palestinarrak erresistentzia nazionala forma militarrean antolatzeke indarra, baliabideak eta baldintzak, eta Europako nazio zapalduak ez. Baina horretarako ere kolonialismoaren kontzeptu argi bat behar da, eta ez nazionalistek erabiltzen duten kontzeptu ilun hori, non Borgoina bera ere kolonia gisa har daitekeen, bere jatorriari edo “esentziari” erreparatuta, eta eztanda nazionalik ez izatea herritarren “alienazioari” leporatu ahal zaion. Alajaina! Nazioak leku guztietan daude, esnatuko dituen Mesiasaren zain!

Hala esnatu ziren judutar sionistak ere, Mesiasaren etorrerarekin. Palestina okupatu zuten, bertan ezarri zuten euren bizilekua, palestinarren garbiketa etnikoa gauzatu horretarako: beraien lurraldetik eta herrietatik kanporatu, herriei su eman, eta kartzela erraldoietan konfinatu. Historialari desberdinek “sortzaileen kolonialismoa” edo “populatzzaileen kolonialismoa” deitu izan diote horri. Gaztelaniazko “*colonialismo de pobladores*” adie-

raren itzulpen posibleak dira biak: sortzaileena, “nazio” berri bat sortzen dutelako; populatzzaileena, kolonialismo horrek ez duelako nazio bat “kanpotik” menderatzen, eta herrialde bat okupatzen duelako nazio berri bat sortzeko eta zegoena kanporatzeko, bortizkeriaren eta erailketaren bitartez.


Berdinketak, beraz, kalte egiten dio palestinarren askapen-prozesuari, eta berdinketaren araberako elkartasuna palestinarren askatasunari baldintzak ezartzea da: edo nazionalisten mundua elikatzeko balio du, edo ez da babesik emango. Horri argi erantzun behar zaio: baldintzekin ematen den babes hori, bi estatuen soluzioa babesten duena; palestinareei, sionisten maila berean, su-etena eskatzen dien babesa, ez da babes bat. Palestinarrak menderakuntzara eta desagerpenera kondenatzen dituen babes bat da.


Palestina, aske izango bada, baldintzarik gabe izango da. Eta horrek baldintzarik handiena deuseztatzea dakar: Israelen eta sionisten desagerpina. ●

INDARKERIA ETA ESPLOTAZIOA, TXANPON BERAREN BI AURPEGI

Testua — **Eneko Carrión**

Irudia — **Joana Oliver**





KOLONIALISMOA ETA GERRA: XX. MENDERA ITZULERA?

Gerraz, faxismoaz eta kolonialismoaz hitz egiteak XX. mendeaz aritzea zirudien orain urte batzuk. Autoritateek bakea, desmilitarizazioa eta bizikidetzatza izango zituen aro berri bat aipatzen zuten mende horren amaieran. Hitz hutsak baino ez, hamarkaden joanean agerian utzi dutenak askok sinesten zuten premisa hau: “globalizazio kapitalistak ez du haren sustatzaileek agindutako bakea ekarri” ^[1]. Historiak frogatu digu ez dela lineala, gorabeheratsua baizik, eta gutxien espero duzunean azkartzen dela. Nire iritziz berebiziko garrantzia duen une baten lekuko gara orain, eta urte askoren buruan baino ez gara jakitun izango zein dimentsio duen. Beranduegi ez heltzea espero dut.

Ukrainako gerrak eta palestinar erresistentziak bizi garen sistema honetaz berez duen indarkeriazko izaera gogorarazi digute; esplotazio ekonomikoaren logika mekanismo hertsatzaileen segida luze batekin bizi da sistema honetan, Estatuan eta hark defendatzen duen legalitatean gorpuzten dena. Israel ez da inongo anomalia, ezta anakronismoa ere, sistema honen baitan hel gaitzekoen basakeriaren oroigarri bat baino ez da. Kapitalismoa gizakiaren nahien garapen logiko eta naturala omen da, tartean nagusiki askatasunarena. Eskuineko hamaika populisten ahotan ikusten dugu egun: “bizitza, askatasuna eta jabetza pribatua” aipatzen ditu, esaterako, Mileik Argentinan; konta diezaietela gezur hori palestinarrei. Marxen esanetan “kapitala poro guztietatik odola eta lokatza dariola dator mundura, oinetatik hasi eta bururaino”, eta, 150 urteren ostean, odolez betetako ibaietan dabil igeri. Erreportaje honen helburua kolonialismoaren ezaugarri ekonomikoak azaltzea da, eta Palestinaren kasuan nola gauzatzen diren zehaztea.

Hitz hutsak baino ez, hamarkaden joanean agerian utzi dutenak askok sinesten zuten premisa hau: “globalizazio kapitalistak ez du haren sustatzaileek agindutako bakea ekarri”

Geroztik denbora luzea pasa den arren, kolonialismoaren ezaugarri ekonomikoetan arreta jarrita, antzekotasun ugari aurkituko ditugu haren eta Palestina-Israel kasuaren artean. Kolonialismoaren funtsezko elementu ugari herri jakin baten gaineko kontrol politiko eta militararekin dute zerikusia, baina horrez gain, ekonomiak funtsezko eginkizuna bete duela ikus dezakegu, sistema koloniala izan baitzen garapen kapitalista globala sustatu zuenetako bat. Eredu kolonialen ezaugarri nagusietako batzuk dira baliabide naturalen (meatzaritzakoak, nekazaritzakoak...) eta tokian tokiko langileen esplotazioa –leku askotan esklaboaren maila berekoa– eta komertzioen gaineko kontrola. Baina kolonialismoa ez da bat eta bakarra izan, eredu desberdinak aurki ditzakegu eta bakoitzak ezaugarri propioak dauzka. Esate baterako, eredu horietako batean, protektoratuen eremuan hain zuzen, tokiko biztanleriak politikan parte hartzen zuen metropoliaren kontrolpeko administrazio propio batekin. Kasu horietako bi adibide izan ziren Frantziaren eta Espainiaren Marokoko protektoratua eta Britaina Handiaren Egiptoko protektoratua. Uste dut ezaugarri hau garrantzitsua dela Palestinaren kasuan, administrazio “propioa” edukitzeak ez baitu koloniaren izaera ezabatzen.


BEGIRATU LABUR BAT IRAGANERA

Palestinar ekonomia aztertzea Israelgo Estatuaren egitura ekonomiko zein politikoa aztertzea da. Ezin da israelarren bizitza ulertu herri palestinarrek sufritzen duen apartheid sistemarik gabe. Okupazioaren hasieretatik arpilatu ditu Israeliek palestinarren baliabideak, horretarako nekazaritzarako eremuak, kokalekuak edo hainbat azpiegitura ezartzeko lur eta jabetzak konfiskatuz. Gainera, baliabide naturalen kontrola bereganatu du, hala nola meatze eta harrobiena, baita baliabide hidraulikoena ere –Itsaso Hilerako sarbidea–. Munduko Bankuaren ikerketa baten arabera, C eremua deiturikoaren %68 –Zisjordania osoaren %60 hartzen duen eta baliabide naturaletan aberatsa den lurraldea– israeldar kokalekuetarako erreserbatu da, eta %1 baino gutxiago, berriz, palestinarrak erabili ahal izateko. Banaketa fisikoak okupatutako lurraldean hainbat ekonomia sortzea eragin du. Mapa honek argi erakusten du Zisjordaniako lurralde antolamendua zein konplexua den.

Palestinar lurraldeen berdintasun eta autogestioaren irudi faltsu moduko batekin konbentzitzen saiatu diren arren, gertatzen ari dena erabateko genozidioa da izatez. 1993an Osloko Akordioak sinatu zirenetik, nazioarteko dohaintza-emailek 50.000 milioi dolarreko inbertsioa egin dute Palestinar Lurralde Okupatuentzako kanpo-laguntzetan. Eredu horretako Mendebaldeko arkitektoek baieztatzen zuten, politika horiek ziren palestinarrek garapenari dagokionez Israelen

Kokaleku israelarrak Zisjordanian

- Kontrol zibil palestinarra
- Eremu palestinarr urbanizatu
- Administrazio-kontrol palestinarra eta kontrol militar israelarra
- Kokaleku israelarren udal mugak
- Kokaleku israelarrak
- 1967 aurretiko muga
- Jerusalemgo udal muga
- Zisjordaniako harresia
- Aurreikusia / eraikitzen



Iturria: B'Tselem

**Okupazioaren hasieretatik arpilatu
ditu Israeliek palestinarren baliabideak,
horretarako nekazaritzarako eremuak,
kokalekuak edo hainbat azpiegitura
ezartzeko lur eta jabetzak konfiskatuz**

**Hau da,
kanpo-laguntzen
finantziazio
hori palestinar
erresistentzia
diziplinatu,
isilarazi eta
desaktibatze
mekanismoa
izan da**



“pare” kokatzea lortuko zuten konponbidea, eta behin bi estatu demokratiko liberal edukita bata bestearen alboan, israeldarra eta palestinarra, posible izango zen eskualdean bakea mantentzea. Era berean, horrek palestinarren gain utzi zuen bakea eraikitzearen zama; aldeaz aurretik, gainera, aldaketa batzuk inposatu zizkieten garapen-estandar zalantzarri batzuk bete zitzaizten, Israeldik gertuen zeuden Mendebaldeko aliatuek definituak. Hau da, kanpo-laguntzen finantziazio hori palestinar erresistentzia diziplinatu, isilarazi eta desaktibatze mekanismoa izan da. 1994an Palestinaren Askapenerako Erakundeak eta Israelgo gobernuak Parisko Protokoloa sinatu zuten, Kairoko Akordioarekin eta Osloko II. Akordioarekin bat egin zuena. “Kontratuzko akordioa” ezarri zen harreman ekonomikoak formalizatzeko, zeinak aurretik Israelek aldebakarrez ezarriak baitzituen Zisjordaniarako eta Gazako Zerrendarako, bost urteko aldi iragankorrearako. Nahiz eta finantziazioa Palestinako Aginte Nazional erdiautonomoa eta autogobernu mugatundun palestinar instituzioak eratzeke erabili, hala nola osasun eta hezkuntza kontuetakoak, ez laguntzak ezta Osloko prozesuak ere ez zituen palestinarren askatasun eta autodeterminaziora hurbildu. Gatazka hau ez aipatzeak eta haren kausak alde batera uzteak eta Israel etno-estatu genozidaren existentziak berak sendotu egiten du *status-quo*aren bortizkeria. Horri, gainera, Osloren laguntza gehitu behar zaio, haren egiturak, berez, Israelek okupazioaren kostuak berdintzeko eta palestinar lurraldearen kolonizazioaren mantenua diruz hornitzeko balio baitu.^[2]

2016ko Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziako txosten baten arabera, Israelek palestinar esportazioen %85 jaso du berriki eta palestinar inportazioen “%70 baino gehiago ordezkatzeko”. Eremuko komertzioaren kontrola da hori, argi eta garbi.

Hau izan zen Parisko Akordioaren ustezko helburua:

“Palestinaren ekonomia indartzeko zimenduak finkatu eta hark bere lehentasun zein garapen egitasmoak finkatzeko eskubidea izatea”. Protokoloaren beste helburuetako bat bi alderdien harremanetarako “oinarri ekonomiko sendo bat” ezartzea da, ekonomiaren arloa ‘elkarren arteko harremanetan giltzarri’ izango delako ustez abiatuta.

Osloko Akordioek Palestinaren eta Israelen ekonomiaren arteko bateratasuna hitzeman zuten arren, hiru hamkadaren ostean, agerian geratu da promesa horien faltsukeria. Bi ekonomiak urrundu egin dira eta Palestinako per capita BPG Israelen %8 baino ez da. Ez dago aipatu beharrik Israelen hazkunde horren euskarria palestinarren esplotazioa dela.

Akordio horiek guztiak Israelgo Estatuaren izaera genozida ezkutatzeko maskarak baino ez dira: etengabeko hedapena eta palestinar herriaren garbiketa etnikoa ahalbidetzen duten adabakiak, israeldarren ekonomia indartzen laguntzen dutenak. Agerian uzten dituzte palestinar sektore jakin batzuen promesa faltsuak eta nazioarteko hainbat erakundek bultzatutako bide “baketsuaren” eraginkortasunik eza. Israelek herri palestinarren inposatzen dizkion zigor eta murrizketak egunerotasunaren parte izan dira, baina 2007az geroztik Hamas Gazako Zerrendan garrantzia irabazten hasi izanak gogortu egin ditu kontrolerako eta menderakuntzarako politikak, zeina garrantzitsua baita gaur egungo egoera ulertzeko.

PALESTINAREN EKONOMIA GAUR EGUN

Okupazioak itxuraldatu egiten du ekonomia, eta palestinarrei miseria-zko bizi eredua inposatu. Palestinan bizitzeak segurtasunik ez izatea esan nahi du. Kokalekuek hedatuz jarraitu zuten eta 2021ean Mendebaldeko Ibarreko palestinar ondasunen eraispentak azken bost urteetako handienak izan ziren. Baldintza sozioekonomikoek okerrera egin zuten, elikagaiekiko segurtasunik ezak gora egin, langabeziak altua izaten jarraitu zuen eta familien herena pobreziaren atalsea gaingitu ezinik geratu zen. Kontu handiz hartu behar dira datuak, etengabeko indarkeriak eta segurtasunik ezak aldaketa estatistiko nabarmenak eragiten baitituzte. Esate baterako, 2021eko maiatzean operazio militar garrantzitsu bat egin zuten Gazan, eta kalte larriak eragin zituen azpiegitura ordurako kolpatuetan. Urte horretan bertan, lan-indarraren erdia baino gehiago langabezia zegoen, %83k gutxieneko soldata baino gutxiago jasotzen zuen eta biztanleriaren %60 pobre gisa sailkatuta zegoen.

2022an Gazan bizitzeak munduan biztanle gehien zituen espazioetako batean konfinatuta bizitzea esan nahi zuen, askotan elektrizitatearik gabe eta ur garbia ezin eskuratu, edo estolderia-sistema aproposik batere gabe. Horrek berekin dakar pobre izateko probabilitatea %65ekoa izatea, eta etsipenak jota biztanleria aktiboa alde batera uztekoa, %41ekoa. Pobrezia handitu egin zen, eta, ondorioz, biztanleen %40k laguntza humanitarioa behar izan zuen. Palestinar guztien %24 eguneko 5,5 dolarrekin bizi da, eta Gazako biztanleen %70 elikagaien segurtasunik gabe bizi da Munduko Elikadura Programaren txostenaren arabera. Mundu mailako elikagaien eta energiaren prezioen gorakadarekin, familia pobreenek era neurrigabeen sufritzen dute, euren gastu osoaren zati handi bat elikagaiak



baitira. Horrek eragiten du palestinarrek laguntza humanitarioaren beharrean egotea eta, horrez gain, kolonoen kokalekuetan baldintza penagarrietan lan egitera behartuta ikustea euren burua. Baldintza egokiak direla erakusten saiatzen diren arren, errealtateak garbi erakusten du Israel aprobetxatu egiten dela Palestina jarri duen egoeraz eskulanagatik nabarmen gutxiago ordaintzeko. 2022an, Zisjordaniako langile palestinarren %22,5ek Israelen edo kokalekuetan lan egiten zuen, batez besteko gutxieneko soldata altua goa da bertan. Hala ere, bitartekarien eta beste kostu batzuen ordainsariekin soldata gordinaren %44 osatzen dute, batez besteko soldata nazionalaren gaineko prima deuseztatuz. Bestalde, jasotako laguntzaren bilakaerari ere erreparatu behar zaio, lehenago dohaintzen laguntza apartheid politikaren ondorio larriak arintzeko erabili baitzen. Dena den, 2022an, Palestinako gobernuak soilik 250 milioi dolar jaso zituen dohaintza-emaleen aurrekontu-lagun-

tza moduan eta 300 milioi dolar garapenerako proiektuentzat. Horrek behe-rakada handia dakar: 2008an guztira 2.000 milioi dolarretik edo BPGren %27 izatetik 2022an BPGren %3 baino gutxiago izatera igaro da.

Bizi- eta lan-baldintza negargarri horiek, aldi berean, Israelentzat onuragarri dira. Baliabide naturalen jabe egitea, eskulan merkea izan eta bere mesedetan komertzioa kontrolatzea estatu sionistaren garapen ekonomikoan lagungarri izan dira. Israelgo estatistika bulego nagusiaren arabera (CBS), Israel bigarren dago per capita hazkundeari dagokionez Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundea (ELGA) osatzen duten herrialdeen artean; Irlanda baino ez dauka aurretik. Gainera, Giza Garapeneraren Indizeak adierazi bezala, nahiko bizi-maila ona du ^[3]. Hori guztia Palestinan inposatutako erregimen kolonialari esker da.


ONDORIOAK ETA ESTATUAREN PAPERA

Palestinar herrian eragindako ondorioez gain, nahikoa argi baitaude, gatazka honek dagoeneko geldirik dagoen mundu mailako ekonomian izan dezakeen inpaktu globalari erreparatu behar diogu. Eskualdean tentsio militarrek gora egiten badute, merkatu energetikoan eragin handia izan dezake, batez ere Iran tartean sartuz gero. Gogora dezagun herrialde hori aipatzean petrolio gordinaren eskaintzaren %3 hartzen duela. Are garrantzitsuagoa, Iranen kontrolpean dago Ormuzko itsasarte. Itsasbide horretatik igarotzen dira Irak, Kuwait, Saudi Arabia eta Arabiar Emirerri Batuetako petrolio eta Qatarko gasa; hain justu, petrolio gordinaren mundu mailako eskaintzaren %20 (itsabideetatik salerosten denaren %30) eta Gas Natural Likidotuaren (GNL) %25 hartzen dituzte, hurrenez hurren.


Ezin dugu ahaztu garrantzi handiko beste gatazka batean murgilduta ere bagaudela; Ukrainako gerrari buruz ari naiz. Hainbat adituk energia krisi baten arriskua aipatzen dute, petrolio gordinaren shocka gas naturalarena baino zabalago hedatzen baita, gasak garraioari eragiten baitio, eta hark, era berean, beste lehengai batzuk ere garraiatzen baititu. Bestalde, aintzako-tzat hartu beharrekoa da Covid osteko gorakada edo errebote-efektua desagertzen ari dela. Halako ezaugarriak dituen krisi baten inpaktua erraldoia izango litzateke eta ordaindu ezinezko zor handiak sortuko lirateke hegoalde globalean, baina Europan ere sumaturiko litzateke eragina. Kontuan hartzekoa da Europak energiaren mende-kotasun handia duela, kontsumitzen duen petrolioaren %90 baino gehiago inportatzen baitu. Era berean, Ukrainako gerrak %25 murriztu ditu mundu mailako petrolio erreserbak. Energiaren Nazioarteko Erakundeak erabili


egin ditu erreserba horiek eta Estatu Batuek ere erreserba estrategikoak erabili dituzte gasolinaren prezioa murrizteko agintaldiaren erdiko hauteskundeetan fokua jarrita.

Gerren intentsitatea igotzeko aukera edo hornigai eta zorren beste krisi bat erronka berria da estatu kapitalisten gobernantza ereduarentzat ^[4]. Gobernatzeko moduen mutazio baten lekuko izaten ari gara, zeinari estatuen norabide aldaketa autoritario deitu izan baitzaio. Metaketa-krisiak eta hortik jaiotzen diren adarrek-klimaren edo gerren adarrak, esaterako- mahai gaineen jarri dute Estatuaren zeregina bizitza ekonomikoaren zuzendari gisa (Estatu Batuetako Bidenomics politika adibidez), baina baita barne-politikan (pobreen gainea kontrola) zein kanpo-politikan ere (migrazioak eta gerrak). Estatuaren izaera hertsatzailea gogortzen aritzea funtsezko elementua da politika komunistarako. Gure etsaia datorrenerako prestatzen ari da. ●



***Gerren intentsitatea igotzeko aukera
edo hornigai eta zorren beste krisi bat
erronka berria da estatu kapitalisten
gobernantza-ereduarentzat***





ERREFERENTZIAK

[1] Callinicos, A. (2023) *Hacia una nueva era de guerra y revolución*

[2] Tartir, A. (2023) *Cómo la ayuda occidental activa el colonialismo de Israel*

Hemen kontsultatua: <https://vientosur.info/como-la-ayuda-occidental-activa-el-colonialismo-de-israel/>

[3] Economía palestina: las alternativas al Protocolo de París

[4] Ilias Alami, Jack Copley y Alexis Moraitis (2023) *La «perversa trinidad» del capitalismo tardío: gobernar en una era de estancamiento, humanidad sobrante y colapso medioambiental.*

Western bat Ekialde Hurbilean: mende bateko kolonizazioa Palestinan



Testua — **Arteka**
Irudia — **Raul Ibañez**



"Kolonialisten helburua beti bera da: indigenen jabetza kolektiboa suntsitzea eta salerosketarako objektu bilakatzea"

Karl Marx

"Jabetza pribatuaren oinarria eta klan arabiarren artean kolono europarrak kokatu izana klanak disolbatzeko bitartekorik boteretsuena bilakatu zen (...). Legeak bi helburu lortu nahi zituen desjabetze horrekin: 1) Frantziarrei ahalik eta lur eremu zabalena ematea; eta 2) Arabiarrak lurrarekin zituzten lotura naturaletatik erauztea, hala disolbatzen ari ziren klan-elkarteen azken heldulekua apurtzeko, eta, hala, baita edonolako matxinadak gertatzeko arriskua ere"

Karl Marx

"**G**eure lurren eremu guztiak
gure masei dagozkie, haiek
defendatu baitituzte lurrok
usurpatzailearen aurka; lur
zati bakoitza, harkaitz eta harri bakoitza,
geure masek ez dute haietatik hazbete
bat ere abandonatuko, pobreei, gosetuei
eta desplazatuei baitagokizkie. Lur hau
libratzeko, eta gure herri indartsu honen
izenean, gure borrokalariak zutik erori
dira gaur"

**Palestina Askatzeko Herri
Frontearen sorrera-agiria, 1967**

Palestinaren gaineko kolonizazio-prozesu historiakoari begirada bat botako diogu erreportaje honetan.

Horretarako, *kolonizazioaren* kontzeptu marxistatik abiatuko gara, kolonialismo sionistaren berezitasunak aztertuko ditugu eta mende oso batean sionismoak Palestinan ezarritako dinamika konplexuak delineatuko ditugu. Lurraldeen okupaziotik hasi eta komunitateen zatiketaraino, kolonialismoak Palestinako txoko bakoitzean hartzen dituen formei ere erreparatu ko diegu. Denboran atzera egingo dugu kolonialismo aurreko Palestina ikusteko, gaur egungo errealtatearekin kontrastatuz, eraldaketen garrantzia ulertzeko. Amaieran, bi estaturen bidezko konponbiderako proposamenen kritika egin eta horren bideraezintasuna argudiatuko dugu, eskualdean sakonki errotutako kolonialismoaren egituren eta Israelgo Estatuaren berezko izaeraren argitan.

Karl Marxek eta Friedrich Engelsek kolonialismoaren inguruko azterketak sistematikorik egin ez bazuten ere, fenomenoaren inguruko perspektiba ugari eskaini zituzten haien eskutitzetan, eta zenbait idazlanetan tartea eskaini zioten, XIX. mendeko klase-borrokaren auzi garrantzitsu bat baitzen. Izatez, Marcelo Mustok berriki argitaratutako artikulua batean gogora ekartzen duenez, Marxek arreta berezia jarri zion kolonialismoari 1882an Aljeriara egin zuen bidaian, eta sakonki sumindu zen Frantziako Inperioaren gehiegikeriekin ^[1]. Baina hau ere garrantzitsuagoa da: komunismo modernoaren aitek kolonialismoaren zentzu historikoa identifikatzeko metodo bat eta marko kontzeptual bat sortu zituzten Ekonomia Politikoa-ren Kritikaren bidetik, zeinak aukera ematen baitu osotasun historikoaren (kapitalismoa) eta dinamika partikularren (kolonialismoa) arteko erlazioa ulertzeko eta politikoki haren aurka borrokatzeko. Horri esker, tradizio marxistan kolonialismoaren inguruko ulermen eta posizio politikoa

Kolono sionistek ez dituzte bilatzen Palestinako baliabide naturalak, posizio geoestrategikoa eta bertakoen eskulan debaluatua bakarrik, baizik eta, nagusiki, biztanleria natiboa erabat edo ia erabat desagerrarazteko helburu espresua dute

argi bat egon da, nahiko partekatua: kolonialismoa ekoizpen-eredu kapitalistaren garapen-fase aurreratua eta espezifikoa da, potentzia kapitalisten botere ekonomikoa, politikoa eta militarra beren muga nazionaletatik kanpoko eskualdeetara hedatzea dakarrena. Beraz, ezaugarritzat du burgesiek beren estatu-nazioen mugez kanpoko lurraldeetako baliabide naturalak, landarra eta merkatuak aktiboki bilatu, bereganatu eta ustiatzea, bertako biztanleria natiboaren kalterako. Ondorioz, estatu okupatzailearen jabetza bihurtzen da kolonia, baina administrazio- eta lege-erregimen berezi baten pean: bertako biztanleria natiboak ez ditu metropolikoaren eskubide berdinak, eta zuzeneko menderakuntza politiko-militar baten pean dago. Kasu batzuetan, kolonietako natiboek metropoliko biztanleek baino eskubide gutxiago izaten dituzte, eta, beste askotan, berriz, inolako eskubiderik ez. Horrez gain, tradizio marxistan asko azpimarratu izan da kolonialismoak metropoliko langile-aristokrazia osatzeko zein mantentzeko funtzioa izan duela. Laburbilduz, marxismoak kapitalismoaren eta haren hedapen kolonialaren arteko berezko harremana seinatzen du.

Hala eta guztiz ere, XX. mende hasierako marxismoak oso bereizketa lausoa erabili zuen *inperialismo* eta

kolonialismo terminoen artean. Izan ere, garai hartan Europako lurralde askok oraindik ere inperio forma zuten estatu-nazioarena baino gehiago, eta potentzia nagusien menderakuntza-mekanismo internazionalak beste lurralde batzuen okupazio militar zuzena zekarten berekin. Ez da erreportaje honen asmoa bi terminoen arteko bereizketan sakontzea. Hala ere, gure gaiari dagokionez, esan daiteke inperialismoak ez duela lurraldemenderakuntza zuzena eskatzen, eta, kolonialismoak, aldiz, ezartzen duela menderakuntza zuzen hori. Israelen kasuan biak uztartzen dira, lurraldeen okupazio zuzenaren gainean eraikitako estatu bat delako eta Mendebaldeko potentzia inperialisten interesen zaindari zeregina betetzen duelako Ekialde Hurbileko eskualdean.

PALESTINAREN KOLONIZAZIOA ETA SIONISMOAREN EZAUGARRIAK

Kolonialismoaren ezaugarri nagusiei dagokionez, Palestina historikoa-ren gaineko kolonizazio-prozesuak edo kolonialismo israeldarrak dituen ezaugarri partikularrei erreparatu behar diegu. Lehenik eta behin, kolonialismo israeldarra nahiko “berria” edo “berantiarra” da ikuspuntu historikotik: Israelgo Estatuaren sortzeko plan zehatzak eta Mandatu britainiarrak horre-



tarako emandako baimenak (1917ko Balfourreko Adierazpena) XX. mende hasierakoak dira, eta entitate sionista 1948an ezarri zen ofizialki palestinar lurretan, jada indarrean zen okupazio informalaren eta partzialaren hedapen eta instituzionalizazio gisa. Europako potentzien kolonizazio-prozesuak, berriaz, XV. mendetik XX. mende erdialdera arte garatu ziren, hau da, Erresuma Batua, Frantzia, Espainia, Portugal, Belgika, Herbehereak, Italia eta beste potentzia batzuk deskolonizazio-prozesuan ziren bitartean hasi zen *Israel* deituriko proiektu koloniala indartzen.

Bestalde, Israelen kolonialismoan berebiziko garrantzia du ordezkapen etnikoaren faktoreak, alegia, "populazaien kolonialismoak", Illian Pappé historialari kritikoak dioen moduan. Izan ere, kolono sionistek ez dituzte bilatzen Palestinako baliabide naturalak, posizio geostrategikoa eta bertakoen eskulan debaluatua bakarrik, baizik eta, nagusiki, biztanleria natiboa erabat edo ia erabat desagerrarazteko helburu espresua dute, izan kanporaketaren bidez edota izan haren suntsi-

pen fisikoaren bidez. Gainera, Israelen sortzaileen eta haien jarraitzaileen ikuspuntutik, Palestinaren lur kolonizatuak ez dira *haien nazioaren misio zibilizatzailea edo lurralde-luzapen* soil; kontrara, Jordan Ibaiaren eta Mediterraneoko kostaldearen arteko lurrak *haien nazioaren muina* direla uste dute. Are gehiago, Estatu Sionistaren ideologo nagusiek, ezker zein eskuin politikoan kokatu, inoiz ez dute argi utzi zein izango liratekeen beraien estatu-proiektuaren azken mugak. Sionistek Eretz Israel edo "Israel Handia" termino biblikoa erabiltzen dute Palestinako lurrak okupatzea justifikatzeko, eta inork ez daki Biblian aipaturiko "Israel" horren mugak non amaitzen diren. Litekeena da, sionisten ustez, muga bibliko horiek egungo Egipto, Jordania, Siria eta Libanoko lurraldeak ere barne hartzea.

Ondorioz, sionistak ez daude konkistatutako lurraldeei uko egiteko prest, ezta funtsezko auzietan aldatetako onartzeko ere. Esan bezala, sionismoa da lurralde-espantsionismo-rako proiektu horren atzetik dagoen

eraikuntza-nazionalerako proiektua edo sustrai ideologikoa. Printzipio jakin batzuk ditu, eta guztiek onartzen edo babesten dute Israelgo Estatuaren existentzia, enfasi maila desberdinekin. Hau dute amankomunean:

"Israel Agindutako Lurraldera itzultzerak": Bibliako itun zaharraren interpretazio jakin batetik eratorritako ideia bat da, juduen artean problematikoa eta kontraesankorra. Izan ere, sionismoa proiektu nazional moderno gisa artikulatu zenean, XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera artean, mugimendu sekular baten moduan sortu zen. Sionismoak Biblian beste nazionalismo batzuek Erdi Aroko gertakari historikoetan bilatzen duten gauza bera bilatzen du: bere nazioaren lurraldea justifikatzeko kontakizun historiko bat. Kontua da Biblian idatzitako asko eta asko ez direla gertakari historikoak bere horretan, mitoak eta herri-kondairak baizik. Are gehiago, sionismoa sortu zenean lider erlijioso judu gehienak horren aurka altxatu ziren, "judaismoaren heresia" bat zekarrela argudiatuta ^[2].

“Etxe nazional judu bat eratzea”: sionismoak Palestinan “estatu judu subirano bat” ezartzearen alde egiten du; juduz, juduentzat eta soilik juduentzat osatutako estatu bat. Hau da, judaismo erlijiosoari naziotasun politikoa ematen dio sionismoak; juduek jada ez dute soilik erlijio bat partekatzen, *nazio bat* osatzen dute. Berdin dio juduak munduko kultura eta nazio ezberdinetan barreiatuta bizitzea, nazionalismo juduaren azken helburua “sakabanatutako nazio” hori lurralde berean elkartzea baita. Paradoxa badirudi ere, antijudaismoak ere uste du nazio etniko bereko kide direla juduak, “gaizkia” ordezkatzeko duen nazio bateko kide hain justu; hala ulertzen zuen nazismoak, esaterako. Beraz, judutarren nazio-jatorri bera aldarrikatzen du sionismoak, horien berezitasun guztiak teorikoki ukatzen, eta, praktikan, Israelgo Estatuan judutar zuriei gainerako jatorri etnikoetako juduei baino tratu hobea ematen.

Juduen autodeterminazioa: “juduek herri gisa duten patua zehazteko eskubidea” defendatzen dute, beren gobernuari eta erakundeei buruzko erabakiak beren estatuan eta soilik beren estatuan hartzea barne. Sionismoak XIX. mendeko nazionalismoak izan zituen ardatz, eta hortik dator ideia hau: “etnia batek osatutako nazio eta lurralde bakarraren” ideia.


Antisemitismoaren aurka babestearen interpretazio perbertsoa: sionismoaren atzean zegoen beste bulkadetakoa bat zen juduek segurtasunari eta ongizateari buruz zuten kezka; munduko hainbat lekutan antisemitismo nazia- ren testuinguru historiko lazarrian areagotu zen. Sionismoak erantzun bat eman zien juduek historikoki jasandako jazarpenari eta diskriminazioari, baina gako arrazistetan eta baztertzail- leetan. Are gehiago, Bigarren Mundu Gerra garaiko lider sionista nagusiek Alemania naziko agintariekin negoziatu zuten, sekretupean Europako judu guztiak Palestinako lurretara “lekualdatzen” laguntzeko ^[3]. Horrela, sionistek naziei “arazo judua” konpontzen lagunduko zieten proiektu nazional propioa eraikitzeko aukeraren truke. Antisemitismoaren eta Holokaustoa- ren memoria Israelgo Estatuak justifikatzeko instrumentalizatzea Bigarren Mundu Gerra osteko lider sionisten estrategia izan zen, lehen ez baitzuten judutarrak akabatzen zituzten horiei eskua emateko inolako arazorik izan. Gainera, sionistek sistematikoki ezku- tatzen dute arabiarrek ere semitek di- rela; are gehiago, palestinarrek askoz ere lotura zuzenagoa dute semitekin europar jatorriko kolono sionista zu- riek baino.

Lurralde-espantsionismoa: sionis- moaren korrante nagusiek, “Israelgo Lurraren garapen ekonomikoaren eta sozialaren” aitzakiapean, *antzinako aberrian* “gizarte judu moderno eta oparoa” eraikitzeko ideia sustatu zu- ten; horrek ezinbestean zekartzan his- torikoki arabiarrek bizi izan ziren lu- rren okupazio mugagabea, populazio horren kanporaketa, esplotazioa eta zapalkuntza. Izan ere, David Ben-Gu- rion Israelgo lehen presidente sozial- demokratik argi eta garbi utzi zuen: “Lehenik lur eremu bat eskuratu behar dugu bertan armada indartsu bat sortu eta etorkizunean lur gehiago geurega- natzeko, gure aberri osoaren proiektua bete arte” ^[4].





Palestinar
erietkeak
gainazka
...



Zibilen
sarraskia
GAZAN.

Israel gehiago da Mendebaldeko potentziek milioika europarrekin batera Ekialde Hurbilean ezarritako base militar erraldoi bat, ohiko nazio-estatu liberal-burges bat baino

Nazionalista judu erreakzionario horien planak indarra hartzen ari ziren munduko komunitate juduaren zati baten barruan, eta europar kolonoen emigrazio masiboari ekin zioten naziek juduen aurkako jazarpen bortitza hasi baino lehen. XX. mende erdialdean, Mendebaldeko potentzia inperialistek kolonialismo osteko eredu berri baten beharra zuten Ekialde Hurbila ekonomikoki, politikoki eta militariki kontrolatzen jarraitzeko. Horrela, Mendebaldeko burgesiaren sektore oligarkikoen eta burgesia judu nazionalistaren interes-komunitate horretatik sortu zen gaur egun Israelgo Estatu bezala ezagutzen dugun etnokrazia. Ondorioz, Israel gehiago da Mendebaldeko potentziek milioika europarrekin batera Ekialde Hurbilean ezarritako base militar erraldoi bat, ohiko nazio-estatu liberal-burges bat baino. Horren adierazle batzuk aipatuko ditugu jarraian, zeinak guztiz ezohikoak izango liratekeen edozein estatutan:

Israelek ez du konstituziorik: “oinarrizko legeen” arabera arautzen da, Espainiako Estatuan “Lege Organiko” gisa izendatzen diren horien pareko zerbaitekin. Horrek esan nahi du estatuaren beraren izaera definitzeko ez dagoela kontsentsurik sionisten artean ere. Tentsio amaigabe bat dago estatuaren izaera sekularraren eta

erlijiosoaren artean; izan ere, estatu-nazio juduaren ideia, ikusi dugun moduan, erabat sekularra da, baina mito erlijioso oso baliagarria zaio sasi-justifikazio gisa eta judutarren babesa irabazteko. Gainera, judutar ortodoxo askorentzat *Tora* idazki sakratuak dira hebrearren konstituzio bakarra. Bestalde, arabiar lurretara modu mugagabean zabaltzea Israelen berezko asmoa denez, ezin dute zehaztu zeintzuk diren euren estatuaren lurralde-mugak. “Batasun nazionala” bermatu zuen elementu eratzailea, beraz, ez zen prozesu konstituziogile batetik eratorritako lege sorta bat izan, 1948ko palestinarren kanporaketa bortitza (*Nakba*) eta horrek ondorengo urteetan eragin zuen gerra baizik. Hau da, armakide izateak eta genozidio batekiko konplizitate partekatuak elkartzen ditu israeldarrak; gainontzeko guztia bigarren mailakoa da.

Hiritartasuna lortzeko baldintza erlatiboki malguak ditu: herritartasuna lortzeko baldintzak beste estatu batzuetan baino askoz ere malguagoak dira. Iran, adibidez, estatu islamiarra da, baina musulmana izate hutsagatik ezin da hango herritartasuna eskuratu. Bada, Israelgo Estatuan edozein juduk automatikoki eskura dezake israeldar herritartasuna, *Aliá* printzipioaren arabera. Horretarako, 1950eko *Itzulera*

Legean ezartzen dute zer diren juduak: “Emakume judu batengandik jaioak edo judutartuak” eta “beste erlijioaren batekoak ez direnak”. Horrez gain, judu izan gabe ere, “bizileku- eta naturalizazio-prozesu” bidez ere eskura daiteke israeldar herritartasuna, bai eta “komunitate juduarekin lotura edota Israelgo Estatuarekin konpromisoa” frogatuz gero ere. Kasu batzuetan, juduekin oso urruneko familia-harremanak “frogatu” dituztenek ere eskuratu izan dute Israelgo herritartasuna. Gainera, Mendebaldeko estatu askotako herritartasunarekin bateragarria da; posible da israeldarra eta estatubatuarra izatea aldi berean, esaterako.

Okupazioagatiko ordainsari eta onurak: Israelgo Estatuak bere biztanleak ekonomikoki eta juridikoki saritzen ditu lurralde jakin batzuetan bizitzea erabakitzen badute, eta horretarako zerga-salbespenak eta dirulaguntzak ematen dizkie. Azken urteetan Gazako Zerrendaren aldameneko kokaleku kolonoak nabarmendu dira halako programen baitan, baina, aurretik, Zisjordaniako eta Al-Quds (hebreerazko *Jerusalem* izenagatik ezagunagoa) ekialdeko hainbat kokaleku okupatzea ere saritu izan dute. Kokaleku horiek, aurrerago ikusiko dugun bezala, okupazio-indar aurreratu edo *abangardia* funtzioa betetzen dute palestinarrek nola edo hala mantentzen dituzten lurren aurka, armadako paraxutistek eta eraso-indarrek bezalaxe.

Amerikako Estatu Batuen kanpo-inbertsio militarren %52 jasotzen du: 2000 eta 2022 artean, kanpo-finantzazio eskusiboki militarren bakarrik, 64.000 milioi dolar baino gehiago jaso dituzte sionistek Washingtonengandik ^[5]. Dirutza horren dimentsioa zenbaterainokoa den irudikatzeko, Serbiako 2023ko Barne Produktu Gordin (BPG) osoaren pareko zerbait edo Israel beraren 2023ko BPGaren %12 da ^[6].

Biztanle guztiek derrigorrezko soldaduska egin behar dute: Israeldar hiritartasuna duten adin nagusiko gizon eta emakume guztiek, salbuespen zorrotz eta murriz batzuk kenduta, 2 urte eta 2 urte eta erdi arteko zerbitzu militarra egin behar dute Israelgo Armadan. Horren ostean, erreserbista gisa egoten dira 51 urte bete arte. Denboraldi horretan, lau hilabeteko prestakuntza jasotzen dute urtero, aktibo mantentzeko ^[7]. Horrek esan nahi du praktikan biztanleriaren gehiengo zabalak prestakuntza militar aurreratua duela eta une batetik bestera biztanleriaren %7 baino gehiago militarri mobiliza dezaketela. Konparaketa bat egitearren, Espainiako Estatuan 140.000 militar daude 47 milioi biztanleren artean, eta Israelgoan 750.000 soldadu 9,4 milioi biztanleren artean; Espainiako Estatuak Israelgoak baino bost aldiz biztanle gehiago izan arren, Israelgo Estatuaren armada bestearena baino bost aldiz handiagoa da.

Adin txikikoak espetxeratzea baimentzen duten legeak ditu. Horietako asko inolako kargurik gabe giltzapetzen dituzte, gainera.

KOLONIZAZIOAREN DINAMIKAK, LURRALDEKA

Kolonialismo sionistaren ezaugarri espezifikoak, printzipioak eta bitxikeria batzuk errepasatu ostean, ikusiko dugu nola gauzatzen duten Palestinaren gainerako kolonizazio-prozesua praktikan. Horretarako, aspektu juridikoei, militarrei eta politikoei erreparatuko diegu, Palestina historikoa gaur egun banatuta dagoen hiru lurraldeen arabera: 1948ko lurrak, Zisjordania, Al-Quds/Jerusalem eta Gazako Zerrenda. Azalduko ditugun faktore guztiek palestinarren bizitza ezinezko bihurtzea eta haiek kanporatzea dute helburutzat.

1948ko lurrak / “Israel”

Sionistek egonkortuen duten eremua da, okupaziopean denbora gehien daramana eta geografikoki zabalena. Israel izeneko estatua eraiki dute ber-

tan azken 75 urteetan, barnetik zein kanpoaldetik zeharo babestuta. Palestinarrek 2023ko urriaren 7ra arte ez dute lortu bertan inolako kontraeraso masiborik egitea. Izan ere, sionistek gotorleku erraldoi bihurtu dute 1948ko lurraldea: lurreko, itsasoko eta aireko armada modernoa dute; “isilpeko” programa nuklearra; munduko inteligentzia-zerbitzu onenetarikoa; puntako teknologia-industria; *Burdinazko Kupa* izeneko misilen aurkako sistema; bonbardaketen kontra prestatutako arkitektura zibila...

Barne-mailan, erregimen sionistak Europako demokrazien antzeko ongizate-estatu bat eraiki du apartheidaren gainean, eta palestinarren aurkako ia erabateko garbiketa etniko erraldoi bat egin du bertan 1948az geroztik. Beraz, babes zibileko eta paramilitarreko oinarri sendo bat eraiki dute israeldarrek herritarren artean, eta fakzio sionisten arteko gatazka politikoak egon badauden arren, ez dago *status quo*-aren kontrako oposizio errealik 1948ko lurren barruan; ia inork ez ditu Palestinako Estatu bakarraren irtenbidea eta sis-

tema kolonialaren desagitea babesten, eta hori egiten dutenentzat ezinezkoa bihurtzen da bertan bizitzeko jarraitzea. Israeldar gizartearen klase-osaeraren inguruko azterketa eguneratu eta serio bat egin beharko litzatekeen arren, argi eta garbi esan behar da israeldar langile-klase badago, gaur-gaurkoz nazionalismo sionistaren proiektuaren banderapean kokatzen den konplizea dela, oro har.

Arlo juridikoan eta diplomatikoan, munduko estatu gehienek aitortzen dute lur horiek “Israel” direla, baita Palestinar Aginte Nazionalak (PAN) ere. Hau da, indartsuenek nazioarteko estatus juridiko baten bidez blindatu dute Palestina historikoaren okupazio militarren gehiengoa, eta Osloko Akordioekin hori onartzera behartu nahi izan zituzten palestinarrek. Mende amaierako hitzarmen horrek iruzur erraldoi bat ekarri zuen: okupazioaren zati bat egonkortzen du, inpunitate osoz aurrera jarraitzea bermatzen dio, baina Zisjordaniako palestinarrei eskuak bizkarrean lotzen dizkie borrokarako.


Babes zibileko eta paramilitarreko oinarri sendo bat eraiki dute israeldarrek herritarren artean, eta fakzio sionisten arteko gatazka politikoak egon badauden arren, ez dago status quo-aren kontrako oposizio errealik 1948ko lurren barruan

Zisjordania

Hiru milioi biztanle inguru ditu Zisjordaniak, eta, diaspora kenduta, palestinar gehien bizi den lurraldea da. Formalki, PANek agintzen du bertan, baina lurraldeak galduz doa azken hamarkadetan, eta baita berez mugatuta dituen eskumenak ere. Izan ere, Israelgo Estatuak ofentsiba historiko bat dauka martxan bertan, eta, hori ulertzeko, Zisjordaniaren kolonizazio-prozesu espezifikoari eta egun indarrean den zonifikazio-sistemari erreparatu behar zaie.

1948ko kanporaketaren ondoren, milioi bat palestinar baino gehiago Palestinako beste lurralde batzuetatik Zisjordaniara joan ziren bizitzera, errefuxiatu-eremuetara. Izatez, israeldarrek hasiera batean uko egin zieten Zisjordaniari eta Gazari, harik eta 1967ko Sei Eguneko Gerran Israelgo Estatuak Gaza, Zisjordania, ekialdeko Jerusalem, Golan (Siria) eta Sinaiko penintsula (Egipto) okupatu zituen arte. Bazirudien sionisten espantsio-planek arrakasta izan zutela, Israelgo Estatuak inoiz baino lurralde gehiago konkistatu

baitzitu. Baina konkistak berak arazo erraldoi bat eragin zien: zer egingo zuten lurralde guztietatik kanporatu ezin zituzten milioika arabiarrekin? Halaber, Sinai Egiptori itzuli zioten eta hainbat palestinarri Zisjordanian bizitzea baimendu zieten, azkenengo hori behin-behineko neurri gisa. Sionistek *Lerro Berdea* izeneko banalerroa ezarri zuten Zisjordaniaren inguruan, baina aurrerago ikusiko dugun moduan, hori ez zen izan lurraldea modu iraunkorrean banatzeko, gerra irekia gelditu zen unean fronteak zuen forma baizik.



Gero, arabiarrek isolatzeko balioko zuen. Gerra amaitu eta berehala, Israelgo Estatuak bederatzi “Gune Militar Itxi” ezarri zituen Zisjordania ekialdean, Jordan Haranean. 1967ko irailean bertan, Zisjordaniako lehen kokaleku kolonoa ezarri zuen, *Kfar Etzion* izeneko. Hurrengo urteetan, 1967 eta 1975 artean, sionistek ia 30 kokaleku gehiago eraiki zituzten Zisjordanian, 4.500 kolonorekin. Denak zentzu estrategiko-ko kokatu zituzten: lehenbizi Jordan Aranean, *Lerro Berdean* zehar eta Jerusalem inguruan, eta gero herrigune arabiarren barruan ere bai; Al-Khalilen (hebreerazko Hebron izenez ezagunagoa), esaterako. Kokaleku horiek guztiak nazioarteko legediaren arabera ilegalak izan arren, inork ez zuen Israelgo Estatua zigortzeko neurririk hartu, eta, beraz, Mendebaldeko potentzia burgesek gaiztakeriak egiten jarraitu zuen, gaizki hezitako haur baten moduan. Esaterako, 1980ko hamarkadan *checkpoint* militarrek eta errepide-sare erraldoi bat eraiki zituen, 1948an okupatutako lurretatik Zisjordaniako kolonietara eta Zisjordania barrenean bidaiatzeko; palestinarrak bizi ziren kokalekuak saihestuz egin zuen dena. Ordutik, errepide horietan bidaiatzeko baimena duten bakarrak biztanleria eta armada kolonoa dira, palestinarrak debekatuta baitute.

Anexio-prozesu horrek Lehen Intifada eragin zuen 1987an, palestinarren altxamendu orokorra. Horren ostean, Zisjordaniaren egungo zonifikazio-sistema ezarri zen. Osloko Akordioetan palestinarrak burgesia txikiak termino batzuk adostu zituen Israelgo Estatuarekin, lurraldetasunaren, administrazioaren eta legediaren arloetan. Hala, hiru gune ezarri zituzten Zisjordanian: A, B eta C guneak. A gunean daude Zisjordaniako hiririk populatuena: Nablus, Yenin, Ramalah, Belen, Tulkarrem Qalqilya, Jerico eta, hein batean, Hebron. Gune hori, teorian, administrazio zibil eta polizial palestinarraren pean legoke, eta israeldarrek debeka-

Kokaleku horiek guztiak nazioarteko legediaren arabera ilegalak izan arren, inork ez zuen Israelgo Estatua zigortzeko neurririk hartu, eta, beraz, Mendebaldeko potentzia burgesek gaiztakeriak egiten jarraitu zuen, gaizki hezitako haur baten moduan

tuta izango lukete bertan sartzea. Hala ere, Israelgo Armadak eta Poliziak sarrakadak eta sarraskiak egiten dituzte bertan etengabe. B guneak Zisjordanian %25 hartzen du, eta bertan daude herrigune gehienak. Hor ere PANi esleitzen diote administrazio zibila, baina errepresioaren funtzioa betetzen du Israelgo Armadarekin. C gunea Zisjordaniako lurraldearen %63 da, beste bi guneak inguratzen ditu, eta bertan daude kokaleku kolono gehienak, gune militarrek, errepideak eta Zisjordaniako baliabide natural ia guztiak; akuiferoak, esate baterako. Lurralde horren eskumen zibila eta militarra israeldarrena da, eta palestinarrak bertan sartzea galarazten diete.

Ikusi dugunez, Israelgo Estatuak kokalekuak erabiltzen ditu Zisjordania osoan bere kontrola zabaltzeko, eta horiek dira hitz-joko burgesak “lurralde okupatu” gisa izendatzen dituenak, 1967 aurretik okupatutako beste lurraldeak okupatuak ez balira bezala. Tel-Avivetik demografia aldatzen eta Zisjordaniako lurraldeen gaineko kontrola ezartzen dihardu, Osloko Akordioen

terminoak eta nazioarteko legedia alde batera utzita eta eremu jakin batzuetan “zibilak” kokatuta. Planteamendu horrekin, sionistek Zisjordaniako 127 kokaleku baino gehiago kontrolatzen dituzte oraingoz, eta bertan 700.000 kolono inguru bizi direla kalkulatu da. Ignacio Álvarez-Ossorio Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko ikerketa arabiarren katedradunak gogorarazten duenez, israeldar hiritartasuna duten hamar biztanletik bat kokaleku kolono berrienetan bizi da^[8]. Horietako asko Israelgo jurisdikzio ofizialek kanpo daudenez eta PANek bere biztanleak kolonoen erasoan aurrean babesten ez dituenenez, Zisjordaniako kolonoek palestinarraren aurka era guztietako ankerkeriak egiteko aprobetxatzen dute, haien bizitza ezinezkoa egiteko eta beren lurak uztera behartzeko. Horrela, kolonia berriak egonkortzen doazen heinean, “Israelgo Estatuaren lurralde ofizialaren” zatitza hartzen dituzte. Anexioan berebiziko funtzio juridikoa betetzen dute Israelgo Estatuak bost urtean behin kokaleku horietarako egiten dituen Larrialdi Legeek.

Ez gaitzatela engaina: kasurik onenean, indiar erreserba baten estiloko lurralde labur eta mutilatu hori da Mendebaldeko progreek “Palestinako Estatu” bihurtu nahi dutena; hori oso urrun dago itsasotik ibairainoko Palestina izatetik

Maila fisikokan, sionistak 700 kilometrotik gorako harresi-sistema bat eraikitzen ari dira Zisjordanian 2004az geroztik, bi aldeak militarki gogor zainduta, eta A, B edo C eremuak zapaltzen ari ote diren erreparatu gabe. Hesi horren %22 baino ez dago *Lerro Berdearen* arabera eraikita, gainontzean, Zisjordanian lurak banatzen ditu. Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegiak hura ilegaltzat jo eta desegiteko eskatu zuen, baina, beste behin ere, ez zuen ondorio errealik izan horrek; bitartean, sionistek hesitze-planaren %65 bete dute dagoeneko. 2014ko negoziatio-prozesuak bertan behera geratu zirenean, sionistek kokalekuetan oinarritutako ofentsiba erraldoi bat jaurti zuten. Gai Humanitarioak Koordinatzeko Nazio Batuen Erakundearen Bulegoak (OCHA, ingelesezko sigletan) iaz ateratako txosten baten arabera ^[9], 2023. urtea izan zen Israelgo Estatuak bizileku kolono berriak eraikitze-ko baimen gehien eman zituen urtea 2012az geroztik. 2020 eta 2023 artean bakarrik, %8 eraikuntza-lizentzia gehiago banatu zituzten. 2023a amaitu baino lehen, “645 oztopo” zenbatu zituzten Zisjordanian eta Al-Quds ekialdean; hesiak eta kontrol militarrek, besteak beste. Halakoen ondorioz, palestinarrek ezin dira normaltasunez

ibili Zisjordanian barrena. Hori gutxi ez balitz bezala, OCHAk gogorazi du Zisjordanian lurraldearen %20an palestinarrek zuzenean debekatuta dute-la sartzea, “Israelgo Armadaren tiroketa-guneen” aitzakiapean.

Palestinaren lurraldetik geratzen dena xurgatzeko modu motel, progresibo eta isil horren helburua Zisjordanian palestinar biztanle-guneak aldamenen ez egotea, palestinarren pobretzea bultzatzea eta Palestinako Estatu bideraezin bilakatzea da. Beraz, Zisjordanian egungo estatusaren eta PANen existentziaren bi funtzio nagusiak okupazio-prozesuan laguntzea eta *zipaioarena* egitea dira, hurrenez hurren. Israelgo Estatuak kontrol soziala bermatzea delegatzen dio etxekotutako administrazio palestinarri, bertako biztanleria ez dadin matxinatu aurrera doan okupazioaren kontra. Ondorioz, gero eta autoritate gutxiago du eta geroz eta israeldarragoa da, baina Palestinar Aginte Nazionala oraindik eraginkorra da Zisjordanian bigarren Gaza bihur ez dadin. Ez gaitzatela engaina: kasurik onenean, indiar erreserba baten estiloko lurralde labur eta mutilatu hori da Mendebaldeko progreek “Palestinako Estatu” bihurtu nahi dutena; hori oso urrun dago itsasotik ibairainoko Palestina izatetik.

Al-Quds/Jerusalem

Okupazioak Al-Qudsen –hala esaten zaio Jerusalem arabieraz– hartzen duen forma zehatza Zisjordanian bereizita aztertuko dugu; izan ere, kolonizazioak dinamika propioak ditu eremu berezi horretan. Al-Quds edo Jerusalem toki sakratua da hiru erlijio monoteistentzat: judaismoarentzat, kristautasunarentzat eta islamarentzat. Kilometro karratu eskasetan, parez pare daude Erosten Harresia (juduen tokirik sakratuena), Meskiten Zelai-gunea (musulmanen hirugarren toki sakratuena garrantzitsuenak) eta Hilobi Santuaren eliza (ustez Jesus berpiztu zen gunea, kristauen arabera).

Palestinaren Al-Qudseko ekialdea Palestinako Estatuaren hiriburu izatea nahi dute, eta Israelgo Estatuak kosta ahala kosta galarazi nahi du hori. Sionistek 1980an aldarrikatu zuten Jerusalem Israelgo Estatuaren hiriburu gisa, eta NBek “Nazioarteko Zuzenbidearen kontraketatzat” jo zuen hori; horrek ere ez zuen, baina, inolako ondorio errealik izan israeldarrentzat. Nahiz eta Osloko negoziatio-prozesuetan Palestina Askatzeko Erakundeak (PAE) Al-Quds mendebaldeari uko egin, Jerusalem mendebalde gisa aitortu eta israeldarrei ematea onartu zuen, sionistek ez zuten ekialdea palestinarrei ematea onartu trukean, eta auzia zintzilik geratu zen. Israeldarrek kokaleku-sistema zentro-kide garrantzitsu bat eraiki dute bertan, gunea banatzeko estrategiari jarraikiz. Gainera, Zisjordanian bertarako sarbidea bereziki zorrotza den kontrol militar israeldarri lotuta dago, eta gehiengo musulmana duen biztanleria palestinarrek oso mugatuta zein neurtuta dauka bertarako sarrera. OCHaren arabera, 2022an, Al-Quds ekialdean edo Israelgo Estatuaren osasun-zentroetan arreta bilatzen zuten Zisjordanian pazienteen baimen-eskaeren %15 eta haien laguntzaileentzako baimen-eskaeren %20 ez ziren onartu programatutako hitzorduetan ^[10]. Urte berean, hiriburu ekialdera anbulantziak egindako

lekualdatzeen %93 atzeratu egin ziren *back-to-back* prozeduraren ondorioz; prozedura horretan, pazienteak Palestinako anbulantzia batetik israeldar baimena duen beste anbulantzia batera eramaten dituzte kontrol-postuetan, agintari israeldarrek ezarritako murrizketen ondorioz. Politika kriminal horren ildo beretik, sionistek probokazio ugari egiten dituzte Meskiten Zelai-gunean eta bere aldirietan, Poliziaren esku-hartzeak eta palestinarren zein haien ikurren aurkako erasoak barne.

Gaza

Gazako Zerrenda ez da Zisjordanian bezain baliotsua Israelgo Estatuarentzat, eta, horregatik, 2023ko urriaren 7ko gertakariak baino lehen ez zuen hura okupatzeko asmo berezirik. Hala ere, horrek ez du esan nahi sionistek bertako palestinarrak bakean uzten dituztenik: alderantziz. Gazako Zerrenda harri bat izaten ari da sionisten zapatan azken bi hamarkadetan, Hamasek bertako botere politikoa eskuratu zuenetik 2006an.

Ordutik, Gaza Israelgo Estatuaren eta PANeko zipaioen kontroletik kanpo dago, Palestinako Erresistentziaren base nagusia da, eta, ondorioz, sionistek eragindako setio-egoera iraunkorrean eta aldizko eraso masiboen pean bizi da. 2023ko sarraski-gerraren aurretik, AIDA (*Association of International Development Agencies*) eta OCHA erakundeek lurralde horri buruzko datu beldurgarriak bildu zituzten, Gazari “munduko eremu irekiko espetxerik handiena” zergatik deitzen zaion ulertzen lagun dezaketenak: datu horien arabera, esaterako, 12 eta 16 ordu arteko elektrizitate-etenak zeuden bertan; etxeen %80k laguntza humanitarioa jasotzen zuten; biztanleriaren %81 pobrezia-egoeran zegoen; %47k ez zuten nahikoa janari; uraren %97 ez zen edangarria; langabezia-tasa %47koa zen; berreraikuntzarako behar zen zementuaren %44,4 baino ez zen iristen; laguntza humanitarioaren %44 blokeatzen zieten; aireportua suntsituta zegoen Israelek 2001ean bonbardatu zuenetik; eta arrantza ere mugatua zegoen^[1].

Gaza Israelgo Estatuaren eta PANeko zipaioen kontroletik kanpo dago, Palestinako Erresistentziaren base nagusia da, eta, ondorioz, sionistek eragindako setio-egoera iraunkorrean eta aldizko eraso masiboen pean bizi da

Azpimarratzekoa da 2023ko urrian hasi den azken gerrak muturrera eramana duela berez ere muturrekoa zen egoera hori. Gazako Gobernuaren Prentsa Bulegoaren 2023ko abenduaren 2ko datuen arabera, azken sarraski-gerraren 57. egunean, ondoko giza kalteak zenbatu zituzten jada: 40.650 zauritu, 7.500 desagertu eta 15.207 hildako baino gehiago. Hildakoen artean, sionistek ondokoak erail zituzten: 75 kazetari, babes zibileko 26 langile, 280 mediku eta 6.387 haur. Azken horiei dagokienez, Gazako umeen eguneko erailketa kopurua Auschwitz baino altuagoa izaten ari da azken gerra honetan: naziek eguneko 127 haur inguru hil zituzten kontzentrazio-esparruetan, eta Israelgo Estatuak, batez beste, eguneko 178 haur akabatzen ari da Gazan^[2]. Su-eten labur bat tarteko, sarraskiak aurrera jarraitzen du.

Kalte materialetan, hurrengo txikizioa zenbatetsi zuten sionisten erasoko 57. egunean: 240.000 etxebizitza partzialki kaltetuta zeuden, beste 50.000 osorik suntsituta, 20 ospitale eta 110 osasun-zentro txiki suntsituta, 56 anbulantzia zuzenean erasotuta, 267 eskola kaltetuta eta 67 zerbitzuz kanpo, gobernuaren 103 eraikin kaltetuta, 181 meskita kaltetuta eta hiru eliza kaltetuta. Are gehiago, Gazako etxebizitzaren %60 kaltetuta edo suntsituta zeuden egun horretarako.

Okupatzaileek azken gerraren aurreko hamabost urteetan erail zituzten 6.400 palestinaretatik %84 Gazako Zerrendakoak ziren, NBERen datuen arabera. Eta kopuru horretatik, erdia baino gehiago zibilak ziren, tartean ehunka haur eta adineko. Indarren korrelazioan dagoen arrakala erraldoia are lazgarriagoa da 2008tik izan diren zaurituen kopuruari erreparatuz gero: 158.000 kaltetuetatik 152.000 baino gehiago palestinarrak dira. Denbora-tartea are gehiago estutzen badugu, NBEk dio 2008 eta 2021 artean, 5.739 palestinarr hil eta 121.438 zauritu zituztela. Hildako sionistak 251 baino ez ziren izan.

KANPORAKETA ETA DIASPORA

Israelgo Estatuaren espantsionismoak eta sarraskiak ez dute heriotza bakarrik eragin, erbestea ere eragin dute. Rashid Khalidi palestinarrak historialariaren arabera, 1948an Israelgo Estatuaren ezarri zuten lurraldeko biztanle arabiarren %80k beren sorterrira utzi behar izan zuten eta beren lurra zein jabetzak galdu zituzten. “Herrialdean bizi ziren 1,3 milioi palestinarratik, gutxienez 720.000 errefuxiatu bihurtu ziren”, azpimarratzen du Khalidik. Garbiketa etniko horri esker, Britainiar Agintaldiko Palestinako lurraldearen %78ren kontrola eskuratu zuten israeldarrek 1948an, eta bertan geratu ahal izan ziren 160.000 arabiar palestinarrak gobernatzera igaro ziren, okupazio-gerra aurreko biztanleria arabiarren bosten bat baino ez ^[13]. Horrez gain, gogoan izan behar da 1948ko Nakba gerra kolonialaren faserik odoltsuena izan dela 2023ko sarraski-gerra hasi arte: 15.000 palestinarrak inguru hilda eman zioten hasiera Israelgo Estatuari.

Kanporaketa-dinamika historiko horren ondorioz, kalkulatu da munduko palestinarrak erdiak Palestina historikotik kanpo bizi direla ^[14]. 14 milioi palestinarrak inguru bizi dira gaur egun munduan, Palestinako Estadistika Bulego Nagusiaren 2021. urteko datuen arabera. Hala ere, horietatik 7 milioi baino ez dira bizi palestinarrak lurretan: 3,2 milioi Zisjordanian, 2,1 milioi Gazan eta 1,7 milioi Israelgo Estatuan (1948ko palestinarrak lurraldeak). Gainontzeko 7 milioietatik, inguruko herrialde arabiarretan bizi dira 6,3 milioi lagun, eta beste 750.000 inguru munduko beste herrialdeetan sakabanatuta. Ekialde Hurbilean dauden Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziaren (UNRWA) arabera, Libanon, Jordanian, Egipton eta Sirian kontzentratzen dira Ekialde Hurbileko errefuxiatu palestinarrak gehienak: 250.000-500.000 artean Libanon, 2,3 milioi Jordanian, 438.000 Sirian eta 70.000-134.000 artean Egipton. Jordaniako kasuan, bertako biztanleriaren

Kanporaketa-dinamika historiko horren ondorioz, kalkulatu da munduko palestinarrak erdiak Palestina historikotik kanpo bizi direla

erdia jatorri palestinarrekoak direla uste da. Libanoko palestinarrak %80 pobrezia-atalase nazionalaren azpitik bizi zirela esaten zuen UNRWAK 2021ean, eta Sirian, berriz, %82 “erabateko pobrezian” bizi zirela ^[15].

PALESTINA, KOLONIZAZIOAREN AURRETIK ETA ONDOREN

1948ko Palestinaren osaketa soziologikoa egungoarekiko oso bestelakoa zen, eta zer esanik ez 1948 aurrekoa. Hemen errealitate horren argazki orokor bat osatzen saiatuko gara, datu apur batzuekin. Nabil Mahmud al-Sahly Palestinako Estadistika Bulegoko ikerlariak XX. mende hasierako britainiar estatistikak dakartza gogora ^[16]: 1919an Palestinako populazio osoa 700.000 biztanlekoa zen, eta 1921ean 762.000 biztanle izatera iritsi zen; horietatik %76,9 musulmanak ziren, %10,6 juduak, %11,6 kristauak eta %0,9 beste konfesio batzuetakoak. Gainera, azpimarratzekoa da orduko judu gehienak arabiarrek ere bazirela. Palestinako biztanleriak hazten jarraitu zuen, eta 1931n 1.035.800 biztanle izatera iritsi zen. Horietatik 619.438 musulmanak ziren (%59,8), 174.000 juduak (%16,9), 91.400 kristauak (%8,8) eta 10.100 inguru, %1 gutxi gorabehera, beste konfesio batzuetakoak.





Urte gutxiren buruan, al-Sahlyk az-pimarratzen duenez, juduak “gutxiengo konfesionala” izatetik garrantzia demografikoa edukitzera pasatu ziren: 1922an 84.000 inguru ziren, eta 1948an 650.000. Britainiarrek prozesu horretan lagundu zieten dio al-Sahlyk, 1922 eta 1948 urteen artean biztanleria judua %11tik %31ra handitzen, hain zuzen. Epe berean, 566.000 biztanle irabazi zituen Palestinak, eta hazkunde horren baitan kolono juduen etorreraren zati proportzionala 400.000 ingurukoa izan zela kalkulatu da. Hala ere, Palestinak 1922an 757.000 biztanle zituen; 1948an, aldiz, 2.100.000 inguru, eta horien artean 1.450.000 ziren arabarrak. 1897 eta 1948 artean nazionalismo sionistak bere helburu nagusietako bat bete zuela ondorioztatzen du al-Sahlyk: mundu osoko 650.000 judu Palestinara eraman zituzten eta 1.800 kilometro karratu okupatzea lortu zu-

1919an Palestinako populazio osoa 700.000 biztanlekoa zen, eta 1921ean 762.000 biztanle izatera iritsi zen; horietatik %76,9 musulmanak ziren, %10,6 juduak, %11,6 kristauak eta %0,9 beste konfesio batzuetakoak

ten (Palestinaren %6,6). Horren ondoren, behin Mendebaldeko burgesia monopolistak argi berdea ematean, Nakbari ekin zioten, aurretik zituzten asmoak maila handian gauzatzeko. 75 urte beranduago, 2023ko irailean, Israelgo Estatuko biztanleen %21 baino ez ziren arabarrak eta %73, berriz, “juduak”^[17]. Beraz, argi dago sionistek Palestinan mende batean zehar garbiketa etniko bat prestatu eta gauzatu dutela


judaismoaren izenean, eta horren biktima nagusiak arabiar musulmanak izan diren arren, kristauak eta beste talde batzuk ere nabarmen murriztu dituztela. Beraz, bada arrazoirik Palestinan gertatu dena “gatazka erlijioso bat” ez dela pentsatzeko, are gehiago kontuan hartuta 2014an, Israelgo Estatuko “juduen” artean, %63 “sekularrak edo ez-erlijioso tradizionalistak” zirela^[18].

Palestinarrak mehatxu bat dira Israelen existentziarentzat, estatu zein kontzeptu gisa. Lehenik eta behin, arabiarrek Palestinako biztanleria natiboa dira eta haien presentzia hutsak zalantzan jartzen du europar jatorriko judu kolono zuriek milaka urteko kondaira sasi-justifikatzaile bibliko baten aitzakiapean han bizitzeko duten zilegitasuna

BI ESTATUEN IRTENBIDEAREN BIDERAEZINTASUNA

Prozesu kolonialaren nondik norakoen errepasoa eginda, amaitzeko, azalduko dugu zergatik den sionistentzat pentsaezina Palestinako Estatu baten existentzia edota palestinarrakin elkarbizitza bera. Hasieran aipatu ditugun faktore ideologikoez gain, horrek baditu zenbait arrazoi demografiko, geopolitiko, ekonomiko eta militar.

Palestinarrak mehatxu bat dira Israelen existentziarentzat, estatu zein kontzeptu gisa. Lehenik eta behin, arabiarrek Palestinako biztanleria natiboa dira eta haien presentzia hutsak zalantzan jartzen du europar jatorriko judu kolono zuriek milaka urteko kondaira sasi-justifikatzaile bibliko baten aitzakiapean han bizitzeko duten zilegitasu-



na. Bigarrenik, palestinarrek lehergai-lu demografiko eta sozial bat direnez, sionistek ezin dute onartu haiekin batera estatu bakarrean bizitzerik: palestinarren jaiotze-tasa altuekin, urte gutxiren buruan demografikoki gaindituko lituzkete kolonoak. Beraz, estatu judu bat nahi badute, arabiarren gehiengoa kanporatu eta geratzen den kopurua zorrotz kontrolatu behar dute. Gainera, maila kualitatiboan ikusi dugu Palestina nagusiki proletarioa den herri bat dela, historikoki borrokarako grina izugarria erakutsi duena. Erdimailako klaseko gizarte israeldarrak, kolono guztiek historikoki pentsatu izan duten bezala, ez du bizi nahi “barbarotzat” eta “terroristatzat” dituen horien ondoan. Are ideia okerragoa iruditzen zaie palestinarrei estatu bat

ematea; “estatu barbaro eta terrorista” bat sortzea eta estatu horri “Israelen mugetan” kokatzeko baimena ematea izango litzatekeelako, haien ustez.

Horri lotutako arrazoi geopolitikoengatik ere, sionismoak ezin du onartu Palestinako Estaturik aldameanean. Esan bezala, Israelek Ekialde Hurbilaren kontrola bermatzen dio NATOren blokeari. Palestinako Estatu bat bere ondoan ezartzeak kontrol hori zailduko lioke, Ekialde Hurbileko sarrera beste arabiar herrialde batek kontrolatuko lukeelako. Gainera, Palestinako Estatu bat sortzeak Mediterraneo kostaldeko hainbat baliabide naturalen kontrola mugatuko lioke Israelgo Estatuari. Libano eta Palestina historikoaren kostaldearen aurrean munduko gas erreserba handieneta-

riko batzuk topatu dituzte azken bi hamarkadetan, *Leviatan gas-zelai* gisa ezagutzen den esparruan. Palestinako Estatu ofizial batek bere kostalde hurbileko uren gaineko kontrolaren zati bat izango luke nazioarteko legediaren arabera, eta horrek sionistei korapilatu egingo lieke erreserba horien ustiapenaren eta merkataritzaren kontrol guztia izatea.

Arlo militarrean, Israelek ezin du onartu Palestinako Estaturik, ezta hori Zisjordaniak bakarrik osatuko balu ere. Sionistak 1967ko gerra aurreko muge-tara erretiratzan badira, nazioarteko erreformismoak eskatzen duen bezala, desabantaila argi batean egongo lirateke Hezbollah-en aldean –Sirian eta Libanon jarduten du–, baita palestinarren aurrean ere. Batetik, 1948ko lurralde okupatuak artilleria eta misil aurreratuen eraso masibo baten aurrean salduta utziko lituzke. Bestetik, eraso berean, palestinarrei itzulitako Zisjordania perfektua izango litzateke palestinarrek 1948ko lurak birkonkistatzeko, Tel-Aviv hiritik bertatik Israel bitan banatzeko aukerarekin. Horrek arrisku larrian jarriko luke Israelgo Estatuaren existentzia bera, eta, beraz, Israelek ezin die uko egin Zisjordanian okupatutako lurrei, abantaila taktiko eta estrategikoa ematen baitiote. Israelentzat, ez dago aipatutako agertokiak bezainbeste beldur eragiten dion ezer: ez NBERen ebazpenak, ez zigorrak, ez eta ezein estaturen kritikak ere. ●



ERREFERENTZIAK

[1] Musto, M (2023). *Marx fue un defensor de la liberación del pueblo árabe*.

JJacobin Revista. Hemen kontsultatua:

<https://jacobinlat.com/2023/12/04/marx-fue-un-defensor-de-la-liberacion-del-pueblo-arabe/>

[2] Adibidez, 1897ko lehen munduko biltzar sionistara gonbidatu zituzten Alemaniako 90 errabino ordezkarietatik 88k biltzarraren aurkako gutun bat sinatu zuten, “protestaren errabinoak” izenpean. Honakoa zioten “Komunitate bereizi bat osatzen dugu, baina soilik gure erlijioari dagokionez. Nazio alemaniarren parte sentitzen gara, honetan gure fedea garatzen ahalegintzen gara eta gure aberkideekin nazio honi ekarpena egiten saiatzen gara, pareko gisa”. Aipamena hemendik egina: De Lange, N. (2011) *El judaísmo*, Madril, Akal.

[3] Sionisten eta nazien arteko itunik handiena 1933an sinatu zen, Haavarako akordioan. Bertan, erregimen naziak juduen Palestinako lurretarako emigrazioa aktiboki laguntzeko konpromisoa hartu zuen, sionistek erregimen naziarekin aktiboki kolaboratzearen truke eta beren ondasunak Alemanian utzi edota Palestinara esportazio alemaniar gisa bidaltzen bazituzten. Erlazio horren inguruko informazio gehiago: Brenner, L. (2010). *Sionismo y fascismo. El sionismo en la época de los dictadores*, Bósforo Libros.

[4] Hemen aipatua: Teveth, S. (1985): *Ben-Gurion and the Palestinian Arabs: From Peace to War*, Oxford University Press.

[5] Marín, J. L. (2023). *La diplomacia de las armas: así es el reparto de la financiación militar extranjera de Estados Unidos - mapas de el orden Mundial - EOM*. EOM. Hemen kontsultatua: <https://elordenmundial.com/mapas-y-graficos/distribucion-financiacion-militar-extranjera-estados-unidos/>

[6] World Bank Open Data. Hemen kontsultatua: <https://data.worldbank.org/>

[7] García, L. (2023). *El servicio militar de Israel: obligatorio para mujeres y hombres y con formaciones de un mes al año para reservistas*. Newtral. Hemen kontsultatua: <https://www.newtral.es/servicio-militar-israel/20231009/>



[8] El Confidencial (2023). *Por qué Gaza es solo una batalla y el gran objetivo de Israel está en Cisjordania* [Vídeo]. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=X7AbDyNW3vc>

[9] *Fact Sheet: Movement and access in the West Bank*, August 2023 (2023). OCHA. Hemen kontsultatua: <https://www.unocha.org/publications/report/occupied-palestinian-territory/fact-sheet-movement-and-access-west-bank-august-2023>

[10] *Ibidem*.

[11] Gedar. *Israelek 12.000 Palestinar baino gehiago erail ditu azken 35 urteetan*. Gedar: Langile Kazeta. Hemen kontsultatua: <https://gedar.eus/aktualitatea/israelek-12000-palestinar-baino-gehiago-erail-ditu-azken-35-urteetan/>

[12] Gedar. *Gazan, umeen eguneko erailketa kopurua Auschwitz baino altuagoa izaten ari da*. Gedar: Langile Kazeta. Hemen kontsultatua: <https://gedar.eus/aktualitatea/gazan-umeen-eguneko-erailketa-kopurua-auschwitz-baino-altuago-izaten-ari-da/>



[13] Khalidi, R (2022): *Palestina, cien años de colonialismo y resistencia*. Madril, Capitan Swing.

[14] Gedar. *Munduko Palestinarren erdia diasporan bizi dira*. Gedar: Langile Kazeta. Hemen kontsultatua: <https://gedar.eus/aktualitatea/munduko-palestinarren-erdia-diasporan-bizi-dira/>

[15] Holleis, J. (2023). *Palestinos en Oriente Medio: ¿Dónde y cómo viven?* dw.com. Hemen kontsultatua: <https://www.dw.com/es/palestinos-en-el-medio-oriente-d%C3%B3nde-y-c%C3%B3mo-viven/a-67590172>

[16] Nabil Mahmud Al-Sahly: *La transformación demográfica Palestina (1948-2005)*. Hemen kontsultatua: https://www.nodo50.org/csca/agenda05/palestina/al-nakba_16-05-05.html

[17] <https://www.cbs.gov.il>

[18] Mitchell, T. (2022). *Israel's Religiously divided Society* | Pew Research Center. Pew Research Center's Religion & Public Life Project. Hemen kontsultatua: <https://www.pewresearch.org/religion/2016/03/08/israels-religiously-divided-society/>


BIBLIOGRAFIA


Khalidi, R (2022): *Palestina, cien años de colonialismo y resistencia*. Capitan Swing.

Pappé, I (2019): *Los diez mitos de Israel*. Akal.

Castillo, J (2022): *Vista de deconstrucción de la identidad nacional sionista: las raíces ideológicas de la expulsión de los árabes* | Revista de Estudios Internacionales Mediterráneos. Hemen kontsultatua: https://revistas.uam.es/reim/article/view/reim2022_32_012/reim2022_32_012

Regadas, L (2020): *Palestinako bake kolonizatua*. ARTEKA, Gedar: Langile Kazeta. Hemen kontsultatua: <https://gedar.eus/es/arteka/palestinako-bake-kolonizatua>





KOLABORAZIOA

GILTZA ETA HARRIA [1]

Testua — **Unai Ibarra**





Artikulu honek palestinarren erresistentzia osatzen duten fakzioei buruzko azalpen labur bat eman eta irakurlea haren antolaketa hurbiltzeko asmoa du.

Lehenik eta behin, adierazi behar dut lerro hauek idaztean oso zaila izan dela ordena jakin bat zehaztea azalpena ahalik eta errazena izan dadin; izan ere, Palestinako politika elkarren artean konektatuta dauden hainbat fakzioren sarea da.

Era berean, gertaera historikoak militante palestinarren pentsamendua moldatzen joan dira eta, beraz, halabeharrezko eraldaketan dagoen prozesu historiko bat da, eta gatazkaren amaiera urrun dago.

Aipatu bezala, artikulu honen helburua palestinarren erresistentziaren eta haren fakzioen egungo egoeraren analisi bat egitea da. Hori dela eta, irakurketa koherente bat egiteko, artikulua zertzelada historiko labur batzuekin hasiko dugu. Dena den, kontuan izan behar da 80 urte inguru daraman gatazka batez dihardugula, eta laburtasuna erlatiboa izango dela.

Geroago, gaur egungo erresistentzia palestinarraz, haien kulturaz eta antolakuntza-forma militanteaz hitz egingo dugu.

Halaber, azpimarratu nahi dut artikulu honen zati handi bat fakzio ezberdinen alde organizatiboei eskainiko zaiela, baita horiek Palestina inguruko estatuetan duten kokapenari ere. Libanoz jardungo dut batez ere, fakzio palestinarren eta Iranen arteko harreman estua ahalbidetzen duen heinean.

***Batasun printzipio
hori palestinarraren
erresistentziaren
gaitasun politiko-
militarrak Israelgo
Estatuarenarekin
kuantitatiboki
zein kualitatiboki
berdintzeko modu
bezala ulertzen zuten,
eta fakzio gehienek bere
egindako oinarrizko
printzipioa izango zen***

PALESTINARREN ERRESISTENTZIA MODERNOAREN HISTORIA

Palestinarren lehen fakzio modernoak, antolakuntza politiko modura ulertuta, Al-Fatah da, 1958an sortua. Hurrengoak, 1967ko Palestina Askatzeko Herri Frontea (aurrerantzean, PAHF). Bi horiek dira Palestina Askatzeko Erakundea (aurrerantzean, PAE) osatuko duten kide nagusiak. Lehenak, posizio nazionalistetatik jaioa eta arabiar sozialismotik gertukoak, posizio sozialdemokrata bat dauka; bigarrenak, aldiz, bloke sobietarretik eta marxismotik gertu dauden posizioak dauzka.

PAE Jordanian sortu zen 1967an. Fakzioen arteko koalizio baten moduan antolatu zen, zeintzuek Israelgo Estatuak okupatutako lurraldea berreskuratzea hartu baitzuten helburu nagusi. Batasun printzipio hori palestinar erresistentziaren gaitasun politiko-militarrak Israelgo Estatuarenarekin kuantitatiboki zein kualitatiboki berdintzeko modu bezala ulertzen zuten, eta fakzio gehienek bere egindako oinarritzko printzipioa izango zen. Ondorioz, erresistentziaren historian zehar ikusiko da ideologia kontraesankorreko fakzioak PAEren baitan batu eta jardun dutela, eta, gaur-gaurkoz, PAEk utzitako hutsunea betetzeko sortu diren beste antolakunde batzuetan.

Horren adibide bat jartze aldera, 1969an, sekzio maoistek eta PAHFren sekzio ezkertiaragoek Palestina Askatzeko Fronte Demokratikoa sortu zuten. Nolanahi ere, berehala batu ziren PAEra, eta PAHFekin batera antolatu ziren bertan.

Nabarmendu beharra dago egungo erresistentzia palestinarrak zerikusi handia duela 1970ean Libanon kokatu izanarekin: talka egiten du kristau maronitekin eta haien fakzio militarrekin, Falange Libanoarrarekin^[2], zeinak Israel aliatu modura ikusten duten arerio politikoen aurka: Libanoko sekta musulmanak, musulman sunniak eta musulman xiiak.

Interes talka horren ondorioz, Libanoko Gerra Zibila piztu zen 1975ean. Israelek esku hartu zuen: Beirut setiatu eta bereganatu zuen eta Libanoko hiriburuko errefuxiatu-esparru palestinarrak hartu zituen, eta bertan bizi ziren palestinarrak sarraskitu.

Hori dela eta, PAEren zuzendaritza Tunisiara kanporatua izan zen 1982 eta 1985 bitartean, nahiz eta kontuan hartzeko moduko zati bat Libanon borrokatzen gelditu zen, gainerako erakunde musulmanekin batera. Denbora tarte horretan PAEren zuzendaritzaren aurkako matxinada bat egin zuten Siriagandik gertuago kokatzen ziren sektoreek, baina porrot egin zuen. 1985an Israelen beste erasoaldi batek behin betiko kanporatu zuen PAE osoa Libanoko lurretatik.





Aldiz, gerra zibilak 1990era arte iraun zuen; Israelek Libano hegoaldea okupatu zuen eta Siriak herrialdearen beste zati handi bat, eta, gerra bukatu ostean, PAEk berriro kokatu zuen bere operazio-zentroa Libanon. Gerraren bukaerak herrialdeko milizia guztien armagabetzea ekarri zuen.

Hala ere, Hezbollah izan zen armagabetze akordioan sartu ez zen bakarra, zeina Israelgo Estatuak Libano hegoaldeko kanporatzeko helburuarekin 1985ean sortutako erakundea baita. Iranen babes osoarekin, musulman xiien interesak ordezkatuko zituen ^[3].

1988an PAEk, Al-Fatah-k gidaturik, Israelgo Estatuak aitortu zuen inplizituki, eta "terrorismoaren" erabilerari uko egin zion bere helburu politikoak lortzeko. Osloko Itunerako baldintzak ezartzeko lehen pausoa izan zen hori.

Gauzak horrela, 1933an Estatu Palestinarraren sorkuntza ekarriko zuten akordio horiek sinatu ziren: (I) Palestinar Aginte Nazionalak (aurrerantz, PAN) Gaza eta Zisjordania kontrolatuko zituen, hau da, 67ko mugak, Sei Eguneko Gerraren aurretiazkoak; (II) PAEk ofizialki aintzatetsiko zuen Israelgo Estatuak eta gainerako lurralde-zatiaren zilegitasuna aitortuko zion. Akordio hori irmoki arbuiatu zuten zenbait fakzioak, horien artean PAHFek.

Gertakari horiek tarteko, PAE berriro ezarri zen PANen kontrolpean jarritako lurraldeetan. Azpimarratzekoa da momentu horretan palestinar errefuxiatu asko itzuli zirela Libanoko Estatuako errefuxiatu-esparruetara, palestinar militante askoren jatorria Osloko Akordioetan PANek ofizialki Israeli emandako lurretan baitzegoen.

Dena den, eta gatazkaren amaiera bazirudien ere, Israelgo Estatuak palestinar proletarioen aurkako genozidio sistematikoa gauzatzen jarraitu zuen: euren etxeetatik kanporatzen zituen kolonoak sar zitezen, eta militante palestinarren atxilotak eta palestinarren aurkako eraso indiskriminatuak gauzatzen jarraitu zuen. Izan ere, Israelgo Estatuaren izateko arrazoia Mendebaldeko lurralde horretan dituen interes inperialistak inposatzea da, eta, ondorioz, interes horientzat mehatxua izan daitekeen edonor deuseztatzea.

Kontrara, eta urte batzuk beranduago, Hezbollah-k 2000. urtera arte jarraitu zuen Libano hegoaldeko okupazioaren aurkako operazioekin. Azkenean, Israelek atzera egin zuen lurralde hori okupatuta mantentzeak zekarkion kostu politiko eta militar altuagatik.

Israelgo Estatuaren izateko arrazoia Mendebaldeak lurralde horretan dituen interes imperialistak inposatzea da

Baina, 2006an egungo egoera ulertzeko ezinbestekoa den gertakari bat gertatu zen. Hezbollah-k, Israelgo armadarekin liskar batzuk izan ondoren, zenbait soldadu bahitu zituen, eta Israelek Libano hegoaldea berriro ere inbaditzea erabaki zuen. Israelen hegazkinek hondakin bihurtu zituzten Beiruteko aldirri xiiak, baina, lurrean, Libanoko erakundeak irabazi zuen, tankeen aurkako misilez baliatuz.

Gertakari horrek palestinar erresistentziako talde askoren pentsaera aldarazi zuen. Israelek ez zuen lortu Hezbollah indargabetzeko helburua, eta, gainera, gerra ulertzeko zuen modua kolokan jar zezakeen gerra-doktrina asimetriko bat topatu zuen parez pare ^[4].

Gatazka horretan zehar fakzio palestinarrek Hezbollah-ren banderapean borrokatzen zirela ulertu behar dugu; izan ere, aliantza militar bat osatzen zuten, aurretik aipatutako batasun printzipioan oinarritzen zena, hau da, aliantza oro zen ongi etorria palestinar fakzioentzat, baldin eta horren bidez etsaiaren gaitasunak berdindu bazitzakeen. Hala izanik, aliantza hori tarteko, palestinar erresistentziaren eta Iranen arteko loturak estutzen hasi ziren.

Gerra honetan, fakzioak Estatu Sionistaren anatomia politikoa ulertzen laguntzen dieten hainbat gauzatzat konturatu ziren: (I) Israelgo herritarrak jada ez zeuden beren mugen barruan gatazka beliko bat edukitzera ohituta; (II) israeldar ugariak bigarren etxebizitza bat zuen Mendebaldeko herrialderen batean, eta, gerra bat piztekotan, Israelgo Estatutik ihes egingo zuen; eta, (III) israeldarrak prest zeuden bahituak eta, are, hildakoak, prezio altuan trukatzeko ^[5].

Garaipen hura ikusirik, Hamas (1985ean sortua) hegemonia lortzen joan zen Gazan 2006 eta 2007 bitartean, eta une hartan PANen, eta, ondorioz, Fatah-ren, esku zeuden instituzioen kontrola bereganatzeko gerra zibil bat hasteko gai ikusi zuen bere burua. Azkenean, bere helburuak lortu zituen; instituzioak bereganatu zituen eta Israelgo Estatuari laguntzen zioten elementuak purgatu zituen, eta fakzio hartako zuzendaritza osoa berritu.

Gertakari historiko horiei jarraikiz, 2011ra joan behar dugu. Udaberri Arabiarra Siriako Gerra Zibilarekin batera bukatu zen [6], eta, bertan, palestinarrek zein alde babestu eztabaidatu zuten: ea Bashar Al Assad babestu behar ote zuten, Siriako presidente eta Iranekiko gertukoa, edo besteak beste Al Qaeda fakzio islamista erradikaletatik gertuko errebolitariak.

Libanoko Gerra Zibila eta 33 Eguneko Gerra direla eta, fakzio palestinarrek Hezbollah-tik eta Iranen interesetatik gertu kokatu ziren. Hala, fakzio gehienak Damaskoko gobernuaren eta Bashar Al Assad Iranen aliatuaren alde jarri ziren berehala, Hamas izan ezik.

Arrazoi nagusia momentu hartan Al Qaedaren ideologiarekiko zuten gertutasuna izan zen, eta horregatik jarri ziren errebolтариaren alde. Hori ikusirik, Iranek eta Hezbollah-k esku hartu zuten, eta errebolтариekin harremanak etetera behartu zuten Hamas. Hala, 2012aren ondoren, fakzio palestinar guztiak ikusi ditugu Estatu Islamikoaren eta errebolтариaren aurka borrokatzen, batez ere gatazkaren lehen urteetan eta Libanoko mugatik gertu dauden herrietan. Ordainean, Hezbollah eta Iranen laguntza etengabea izan da. Bien bitartean, Hamasek gero eta posizio moderatuagoak hartu ditu islamari dagokionez.



Palestinaren Askapenerako Erakundea



Al-Asifaren logoa



Palestinako Agintaritza Nazionalaren logoa



Hezbollah-ren logoa



Palestinaren Askapenerako Herri Frontearen logoa



Palestinaren Askapenerako Herri Frontearen kartela



Palestinaren Askapenerako Herri Frontearen kartela



Palestinaren Askapenerako Herri Frontearen kartela

FAKZIO PALESTINARRAK

Testuinguru historikoa ikusirik, uste dut garrantzitsua dela egungo fakzio palestinarren artean nagusitzen diren ideologiak aztertzen hasia.

Batetik, islametik gertuago kokatzen diren fakzioak daude, Palestinako Jihad Islamikoa (aurrerantzean, PJI), Brigada Muyahidinak eta Hamas, aipatu bezala: posizio nabarmen moderatuagoak dituzte, beste erlijio batzuekin bizikidetzatza eta 67ko mugak onartzen baitituzte, Israelgo Estatua bitartekari moduan aitortzen baitute, eta ez baitute lege islamikoa inposatzen, besteak beste.

Beste alde batetik, ideologia palestinar nazionalistak daude, ezkerrekoak zein eskuinekoak. Horien artean Fatah eta PAFD; herrialde palestinar laiko bat defendatzen dute, Fatahk 67ko mugen barruan, eta PAFDk, aldiz, itsasotik ibairainoko Estatu Palestinar baten sorrera galdegiten du, hau da, Nakba aurreko lurraldea.

Azkenik, PAHF dago, gatazkaren ikuspegi panarabiarra duena^[7]; hau da, Palestinaren gatazka nazioarteko arazo moduan ulertzen dute, eta lotu egiten dituzte Palestinaren auzia eta Israelekin kolaboratzen duten burgesiek eta gobernuek zapaltzen dituzten milioika arabiarrek dituzten arazoak. Hortaz, ulertzen dute Palestinaren auzia konpontzeko beharrezkoa dela burgesia arabiarrek garaitzea, haien etsaiekin kolaboratzen eta hura elikatzen baitute.

Auzi organizatiboari dagokionez, fakzio bakoitza antolatzen den lurraldearen arabera da. Hau da, guztiak daude antolatuta PANi 1993an emandako mugen barruan zein Libanoko errefuxiatu-esparruetan, baina haien pentsatzeko era desberdina da kokatzen diren lekuaren arabera.

Horretan sartu aurretik, aipatu nahi nuke fakzio guztiek dutela beren egitura edo adar militarra, hau da, guztiek ulertzen dute gerra modu politiko batean: “egiazko tresna politiko bat harreman politikoaren luzapen bat eta harreman horien kudeaketa, beste bitarteko batzuekin egiten dena”^[8]. Are gehiago, badaude adar militarra baino ez duten fakzioak, beste fakzio batzuen adar politikoek betetzen dutelako leku hori.

Horren harira, eta segurtasun arrazoiengatik, hainbat fakziotan baina bereziki Hamasen, adar politikoak eta militarrek organikoki bereizitako egitura izaten dute, hau da, bi aldeen arteko kontaktua minimoa da. Horrek lider militarrei babes handiagoa eman die, baina erakundearen benetako kontrolagatik gatazka ere ekarri du.

Zentzu horretan, borrokalari palestinarren militantzian premisa da borroka azken muturreraino eramatea, azken ondorioraino: arerioa garaitu ala hil

Aurreko guztiari gehitu behar zaio politika palestinarrean heriotza eta terrora balio eta eragin kultural handiko bi erreminta direla, biak ala biak elkarri lotuak. Hilerriek toki zentrala hartzen dute errefuxiatu-esparruetan eta leku guztietan daude ehunka martiriren argazkiak. Hala, Israelgo Estatuaren aurkako borrokako martirioa tresna politiko bilakatzen dute, borrokatu ala ez berdin-berdin akabatuko dituen munstroaren aurka borrokatzera bultzatzeko hurrengo belaunaldiak.

Zentzu horretan, borrokalari palestinarren militantzian premisa da borroka azken muturreraino eramatea, azken ondorioraino: arerioa garaitu ala hil.

Horrekin lotuta, garrantzitsua da aipatzea 2006ko Libanoko Gerran ikusi bezala, terrora arma politiko bat dela, azaldutakoarekin lotura estua duena. Izan ere, palestinarrek ez bezala, israeldar askok Mendebaldeko Estatuetan dute beren lehen edo bigarren etxebizitza, eta, ondorioz, terrora haiek kanporatzeko, Estatu Sionistaren barne-politika ezegonkortzeko eta Israelgo Gobernuua egoera baretzera edo tentsionatzera bultzatzeko modu bat da, azken horrek sortzen duen gaitzespen internazionala kontuan izanik.

Terrorearen eta martirioaren baturak, ondorio moduan, politikoki edozein arma erabiltzea dakar. Militante palestinar batentzat balio bera dute misil-jaurtigailu batekin tanke israeldar bati tiro egiteak eta hirietan biztanle israeldarrei tiro egiteak, kafetegi batean immolatzeak, kontrol bat ikustean martxarik luzeena sartu eta azeleratzeak zein sukaldeko aizto batekin israeldar polizia baten jugularrera salto egiteak. Horiek guztiak ekintza politikoak dira, aurreko paragrafoan azaldutako helburu politikoak aintzat izanik.

Azkenik, eta garrantzitsua iruditzen zait hau esatea, gatazka dela-eta oso gazte hasten dira fakzioetako kideak politikan eta esparru militarrean, eta, ondorioz, militanteak ez dira fakzio batera edo bestera arrazoi ideologikoengatik batzen, familiako fakzioa bere egiten dutelako baino.

LIBANO: HEZBOLLAH ETA FAKZIO PALESTINARRAK

Azaldu bezala, fakzio palestinarren antolaketa jarduten duten lurralde eremuaren arabera da. Hala izanik, Libano aztertzen hasiko gara.

Beiruteko aldiriak eta herrialdeko hegoalde eta ekialdea Hezbollah-k eta Amalek kontrolatzen dituzte^[9]. Horrek fakzio palestinarrek eta Irango eta Siriako Gobernuarekin harreman estua izatea ahalbidetzen die, eta azken horiek palestinar fakzioei laguntzen diete, medikuak, armak eta finantziazioa emanez.

Bi fronte xii horiek eta fakzio palestinarrek gune geografikoki antolatzen dira, eta, hala, errefuxiatu-esparruetako auzoak fakzio batek edo bestek kontrolatzen dituzte. Horren arrazoi nagusia da, aurretik esan bezala, afiliazio politikoa familiatik etortzen zaiela, eta, hortaz, fakzioak elkarren ondoan bizi diren familia handien arteko batasun modura osatzen direla. Ondorioz, fakzioek taktikoki auzo jakin baten kontrola eskuratzen dute, egoitza bertan ezarritik, eta eskolak, meskitak, gimnasioak eta ospitaleak eraikitzen dituzte auzo hartan, fakzio bakoitzarekin lotura duten herrialdeen finantziazioa baliatuz. Esate baterako, Hamasengandik gertuko auzoetan Qatarrek eta Turkiak finantzitzen dituzte eraikuntzak.

Hala eta guztiz ere, azpimarragarria da kanpamenduetako erabakiak asanblada bidez hartzen dituztela, non bertan ordezkaritza politikoa duten fakzio guztiek parte hartzen duten.

Nabarmentzekoa da Libanoko eta Israelgo palestinarrek ez dutela lan egiteko eskubiderik. Hori dela eta, haietako asko, baita militanteak ere, GKEetan eta NBEn lan egitera behartuak daude; hala, eskuragarri dituzte haien finantziazioa eta proiektuak. Ondorioz, ez da arraroa Israelek horiek kolpatzea helburutzat hartzea.

Artikulu honen xedea ez bada ere, uste dut garrantzitsua dela aipatzea Hezbollah-k hainbat masa-antolakunde sortu dituela kapa proletario zabalera heltzeko helburuz. Horretarako, ongintzazko erakundeak, umezurztegiak, eskolak, ospitaleak eta abar sortu eta eraiki ditu^[10]. Horrenbestez, masa musulmanetako, palestinarretako eta kristau katolikoetako sektore proletarizatu handien babesa irabazten joan da; are gehiago, Libanoko Alderdi Komunistak berak ere modu aktiboan egiten du lan Hezbollah-ren inguruan^[11].

Zentzu horretan, Palestina oso lurralde garrantzitsua da, ez soilik arabiarren gogoan, baizik eta bi potentzien artean kokatutako lurralde-gatazka baten erdian dagoelako: Israel eta Iranen artean. Hori horrela, azken hamarkadan eta, batez ere, Siria eta Yemengo gerren ondoren, Iranen aldeko posizioak zilegitasuna eta jarraitzaileak irabazi ditu hainbat tokitan, batez ere Iraken, Yemenen, Sirian eta Libanon, hain justu, Ekialde Hurbilaren kontrola bereganatzeko Iranek daraman posizio-borrokarako aliatu nagusietan.

Iranentzat Palestina, kulturalki duen esanguraz gain, Estatu Sionistaren eta hark ordezkatzeko duen Mendebaldeko inperialismoaren zilegitasun politikoa kolokan jar dezakeen herrialde bat da; izan ere, Israelek Ekialde Hurbilean abantailazko egoera ematen baitio azken horri.

Ondorioz, Iranek ezin du onartu palestinarrek beren asmo politikoetan garaituak izatea; izan ere, horrek ekarriko luke Israelek bere hurrengo mugimenduak Hezbollah-ren, Siriaren, aurka bideratzea (jada bonbardatu egiten duen arren), edo Iran babesten duten fakzio irakiarren aurkako eraso batzuek. Hala, Israelek liskarrak hasiko lituzke Palestinatik haratago, Iranek superpotentzia bat izateko dituen aukerak murrizteko.

Hori dela eta, erresistentzia palestinarra Israelen bihotz politiko eta militarra erasotzeko aliatu bat da Iranentzat. Bere buruarentzat ondorio nahi-ko arinak ditu, eta, aldiz, Israelentzat erdiko mailako edo maila altuko gatazka armatu bat izatea kolpe handia da bere barnean zein nazioartean duen zilegitasun eta egonkortasunarentzat.

Beraz, nazioarteko indar batek biztanleria palestinarra lekualdatzeko edo Gazaren gaineko kontrola hartzeko aukera sortuko balitz, Iranek karta politiko garrantzitsu bat galduko luke. Badaki, eta ez dago hura galtzeko prest. Hortaz, hori gertatuz gero, baliteke Iranen aldeko herrialdeek gerra gehiago egitea inguru horretako interes inperialisten aurka, eta Libano hegoaldean erabateko gerra piztea, non mugak irekitzea nahikoa izango litzatekeen palestinarren fakzioak Israelgo Estatuaren iparraldeko hirietara borrokara sartzeko.

ZISJORDANIA

Zisjordanian, Israelek, egindako ekintzen bidez, kontrolpean hartu ditu hainbat herri, eta, ondorioz, palestinarrak kanpamenduetan errefuxiatu behar izan dute. Berez erabat PANen kontrolpean dagoen lurraldea bada ere, hark ez du ezer egin egoera gelditzeko. Ondorioz, milaka palestinari bizi dira Jeningo eta Balatako kanpamenduetan, besteren artean.

Aipatu behar dugu PANeko burokraten esku dauden instituzioak batez ere Saudi Arabiak eta Israelek finantzatzatzen dituztela (Osloko Akordioak onartzean ezarri zen finantzaketa hori), eta burgesia txikiak harreman komertzialak dituela Israelekin; hala, *status quo*-aren onuradun den eta eroso bizi den kapa sozial bat sortzen da. Erdi-mailako klase hori egoeraz jabetzen den eta bere posizioa mantentzeko lan egiten duen kapa sozial bat da, eta PAN baliatzen du ordenaren alderdi gisa.

Hala izanik, Fatah-k, PAE kontrolatzen duen fakzio nagusiak, aldebakartasunez eten ditu gainerako fakzioentzat adostuta zituen finantziario bideak. Bitartean, PAN eta bere burokrazia lanean aritu dira, modu batean edo bestean, ahots diskordanteak azpiratzeko; horren adibide, PAHFren lider politikoa Israeli entregatu izana 2004an ^[12].

Erdi-mailako klase hori egoeraz jabetzen den eta bere posizioa mantentzeko lan egiten duen kapa sozial bat da, eta PAN baliatzen du ordenaren alderdi gisa

Horren guztiaurrean, azken urteetan fakzio disidente berriak sortu dira, Hamasekin lotura ideologiko eta organizatibo oso estuak dituztenak, horien artean Lions Deen. Hamasek, bere aparatua erabili ordez, fakzio berri horiek baliatzen ditu bere helburuak lortzeko.

Are gehiago, fakzio horiek ez dute adar politikorik, haien posizionamendu politikoaren berri Hamaseko eta PJIko bozeramaileek ematen baitute. Fakziook arbasoen fakzioekin lotzen zituzten harreman historiko eta familiarak hausteko gai izan dira, eta tentsionatze estrategia batean kokatu dira, bai PANen indarrekiko eta baita Israelekiko Balatako eta Jeningo kanpamenduetan. Hala, PAN ez da talde disidente berriak kontrolatzeko gai izan Balatan eta Jeninen, eta horrek Israelgo armada haien partez esku hartzera behartu du ^[13].

Aitzitik, azaroko azken astean Zisjordanian gertatutako presoen askapenak irudi zaila utzi du PANen interesentzat, ehunka palestinarrak Hamas Israelgo Estatuaren aurrean garaipenak lortzeko eta euren senitartekoak kartzelatik ateratzeko gai den alderdi gisara ikusten hasi baitira.

Hortaz, Hamasen hegemonia geroz eta handiagoa da palestinarren artean, orain baita Zisjordanian ere. Ondorioz, ezin gaitu harritu etorkizunean Hamasen gertuko fakzioek, Lions Deenek kasu, 2006an bezala, Fatah-k Zisjordanian duen kontrola bukatzeko borrokak hasten badituzte, eta, modu horretan, kuantitatiboki eta kualitatiboki ofentsiba handiagoak gauzatzeko gaitasunak irabazi.

Adosado
kalera











GAZA

Bien artean, Gazan fakzio nagusia Hamas da, eta, Hezbollah-k bezala, aurretik esan moduan, gai da gainerako fakzioak bere inguruan batu eta pentsamendu palestinarra gidatzen duen batasun printzipioaren ardatza izateko. Hamasek darama ekintza politiko eta militarrek egiteko gidaritza nagusia, eta, nahiz eta gainerako fakzioek (PAHF, Fatah, PJI, PAFD...) hitza eta botoa duten Gazatik hartzen diren erabaki militarrek (ez instituzionalak, hori Hamasek bakarrik egiten du) gidatzen dituen baterako ekintzen ganberan, fakzio hori babesten dute.

Zentzu horretan, eta Libanoko mapa laburrarekin ikusi dugun bezala, fakzioen arteko batasunaren bidez etsaiaren gaitasunak berdintzeko pentsamendu kolektibo palestinarrek eta Fatah-k eta haren antolakunde txotxongiloek (PAN eta PAE) posizio kolaboratzaileak eta normalizatzaileak hartu izanak Estatu Sionistarekiko, palestinar fakzioe-

tan umezurztasun politikoko sentimendu bat sortu du 2000 eta 2010 artean, haien itsasargi politiko historikoa posizio kolaborazionista eta erreakzionarioetarantz biratzen ikusi baitute.

Nolanahi ere, horrek gertakari politikoen leerroan PAEk utzitako hutsunea beste aktore batzuek bete izana ekarri du. Israel kanporatu eta 33 Eguneko Gerraren ondoren, ikusi dugunez, posizio hori Hezbollah-k hartu du Libanon, fakzio guztien arteko lotura lanak egiten dituenak; Gazan, aldiz, Hamasek bete du batasuna antolatzeko posizio hori, eta PJIk ere bai neurri txikiagoan.

Ondorioz, ez ninduke harrituko gaur egun Gazan borrokatzen diren Hamasen indar asko beste fakzio batzuetako militanteek osatzea. Libano hegoaldeko borroketan jarduten duten palestinarrek, aldiz, Hezbollah-ko uniformeak jantzirik borrokatzen dira.



Ismail Haniyek ordezkaturako adar politikoa Qatarren babespean dago, eta, hortaz, Israelekiko status quo-a mantentzearen aldeko posizioa dauka, eta borroka instituzionala lehenesten du militarren aurrean. Adar militarra, aldiz, Iranen eta Hezbollah-ren babespean eta Yahya Sinwarrek ordezkaturak, harremanen normalizazioaren aurka posizionatu da

Baina, Gazaz eta Hamasez hitz egiten jarraitzeko, uste dut interesgarria dela lurralde palestinarretik kanpo kokatzen den Hamasen erakunde politikoaren eta erakunde militarren arteko ezberdintasunen analisi bat egitea, 2023 bukaeran gertaturako borroken ondorengo gertakariak ulertzeko gakoa izango baita.

Gaur egun esan dezakegu Hamasen adar militarren eta politikoaren arteko bereizketak bien arteko norgehiagoka isila ekarri duela, zeina oso esanguratsua den palestinar politika ulertzeko.

Ismail Haniyek ordezkaturako adar politikoa Qatarren babespean dago (herrialdean hedaturako tropa estatubatuar ugari eta Estatu Batuen eta arabiar monarkien babesa du), eta, hortaz, Israelekiko *status quo*-a mantentzearen aldeko posizioa dauka, eta borroka instituzionala lehenesten du militarren aurrean. Adar militarra, aldiz, Iranen eta Hezbollah-ren babespean eta Yahya Sinwarrek ordezkaturak, harremanen normalizazioaren aurka posizionatu da, eta ofentsiba-posizio batean kokatu da, Israelengandik palestinarren bizi baldintzak hobetuko dituzten kontzesio politikoak lortzeko helburuarekin.

Horrela, bada, xake politiko bat dago adar politikoaren (era batera edo bestera ordezkatzeko ditugutxi-asko Israelekiko harremanen normalizazioarekin bat datozen estatu eta burgesia arabiarren interesak) eta masa militarren artean (Israelen aurkako ofentsiba batean dago, masa palestinarren artean posizioak eta hegemonia irabaztea eragingo dioten bermeak lortzeko), zeina nabarmena baita bi aldeek arteko liskarretan.

Urriaren 7tik, Hamasen adar politikoak Qatarrekin batera bahituen trukaketak negoziatzen eta egoera baretzen jardun du, eta, era berean, adar militarrek egindako ekintza ofentsiboak kritikatu eta arbuiatu ditu, lurraldeko tentsioa baretu nahian *status quo*-a mantentzeko eta PANek zilegitasuna galtzen duenean bere lekua har dezakeen alderdi baten itxura emateko.

2023ko azaroaren 24ko bahituen trukea testuinguru horretan kokatzen da: Egiptok Israelen ordezkari gisa negoziaturako bakeak –Qatar bitartekari moduan eta Hamasen adar politikoa erresistentzia palestinarren ordezkari gisa–, atxilotuen trukaketa ekarri du, 2006an egindako trukaketen antzeko prezioan. Dena den, aipatu behar da piztia sionistak askaturako atxilotu guztiak Zisjordaniako palestinarrek izan direla eta PANek atxilotu jakinen askapenari betoa jartzeko aukera izan duela. Hortaz, adar militarrek, Gazan nagusitzen denak, ez du haren gertukorik askatzen ikusi. Horrek erakusten digu interes kontrajarriak daudela, eta adar politikoa PANen instituzioak hartzen saiatzen ari dela, haren erdi-mailako klasea alboratzeko eta bere erdi-mailako klaseari emateko boterea. ●

ERREFERENTZIAK

[1] Palestinarrentzat giltza Nakban galdutako etheen eta beren lur gaur-gaurkoz okupatuetara itzultzeko eskubidearen ikurra da

[2] Espainiako Falangetik datorkio izena, Espainiako Gerra Zibilagatik eta bando faxistaren mantra erlijiosoagatik.

[3] Traboulsi, F. (2007). *A History of Modern Lebanon*. Pluto Press.

[4] “Gerra bat, non bi arerioen arteko diferentzia kualitatibo eta kuantitatiboa sekulakoa den”. Taber, R. (1973) *La Guerra de la Pulga*. Ediciones Era.

[5] Perry, M. & Crooke, A. (2006). Crooke *How Hezbollah Defeated Israel*. Asia Times.

[6] 2010 eta 2012 bitartean Ekialde Ertainean eta Afrika Iparraldean jazotako Protestak.


[7] Honela definitzen du panarabismoa: “espazio geografiko bat, definizio-elementu nagusi duena arabiar hizkuntza nagusi izatea”. Yassin (2022). *La evolución del Panarabismo* Descifrando la Guerra. Hemen kontsultatua: <https://www.descifrandolaguerra.es/la-evolucion-del-panarabismo/>

[8] Clausewitz, C.V. (2015). *De la guerra*. Ediciones Obelisco.

[9] Siriako Estatuarekin lotuta dagoen fronte xiita; Hezbollah haren eszisio bat da. Ochoa, N. (2023) *¿Qué es Hezbolá?*. El Orden Mundial. Hemen kontsultatua: <https://elordenmundial.com/que-es-hezbola/>. *Frente Chiita relacionado con el Estado Sirio, Hezbollah es una escisión del mismo*.

[10] Love, J.B. (2010). *Hezbollah: Social Services as a Source of Power*. JSOU Report 10-5.





[11] Docena, H. (2006). *Amid the bombs, unity is forged*. Asia Times.

[12] *Israel apresa a los líderes del FPLP en un asalto a la prisión palestina de Jericó*. El Confidencial.

https://www.elconfidencial.com/mundo/2006-03-14/israel-apresa-a-los-lideres-del-fplp-en-un-asalto-a-la-prision-palestina-de-jerico_609278/

[13] *Israel lanza en Yenín una operación inédita en casi dos décadas, con bombardeos aéreos y el despliegue de cientos de soldados*. El País.

<https://elpais.com/internacional/2023-07-03/israel-lanza-en-yenin-una-operacion-inedita-en-casi-dos-decadas-con-ataques-aereos-y-cientos-de-soldados.html>

HISTORIA
ERREPORTAJEA

Estatu sionistaren hastapenak



Borja Carretero



"Iraganera ez zara zeure burua entretenitzeko anekdota bila joaten, baizik eta gaur egun gertatzen den hori ulertzeko gako bila. Historialariaren lanak ez badu bizi zaren mundua ulertzeko balio, ez du ezertarako balio"

Josep Fontana

Testu honetan ikusiko dugu nola Israelgo Estatu modernoa, 1948an jaioa, Mendebaldeko herrialdeek arabiar mundua kontrolatzeko (eta aldi berean desegonkortzeko) zuten nahiari jarraikiz sortu zen. Mendebaldeko herrialdeek, bereziki Erresuma Batuak eta Estatu Batuek, arrisku moduan ikusten zuten herrialde arabiarrek Mendebaldeari aurre egiteko gai izango litzatekeen estatu edo konfederazio bakarrean batzearen aukera. Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko enfrontamendua berpiztearen beldurrak bultzatu zuen inperialismo europarra estatu sionista eraikitzen. Jarraian ikusiko dugun moduan, estatu horrek antz handiagoa du herrialde europarrekin mundu semitarekin baino.

Lehen hurbilketa gisa, Israelgo Estatuaren jatorria ulertzeko, XIX. mendearen erdialdeko Europara jo behar dugu. Europako kontinentea, garai hartan, erromantizismoaren eta nazionalismoaren irakinaldian murgilduta zegoen, eta testuinguru ideologiko horretan sortu ziren identitate nazionalak gaur egun ulertzen ditugun bezala. Espainiar, frantziar, greziar, errusiar, euskal edo beste edozein nazionalismok iragan mitifikatu eta sasi-historikoetan oinarrituta eraiki zituzten euren oinarri identitarioak (eskuarki, oinarri horiek Erdi Aroko erresumetan oinarritzen ziren); nazionalismo sionistak berea osatu zuen eta bere jatorria *Eretz Israel* edo Israelgo Lurraldean ezarri zuen. Judako eta Israelgo erresumek duela 3.000 urte okupatutako lurra aipatzen du termino horrek.

Sionismoaren aita Theodor Herzl hungariarra izan zen (1860-1904). Moses Hessek (1812-1875) *Erroma eta Jerusalem* lanean planteatutako ideietan oinarrituta, Europak jasaten duen antisemitismorako irtenbide bakarra Israelgo Lurraldera itzultzea dela ezarri zuen, eta sionismo gisa ezagutzen dugun ideia garatu zuen. Izan ere, antisemitismoa ohikoa zen Europan Erdi Arotik, kristau sinesmenaz geroztik juduek salatu baitzuten Jesukristo erromatarren aurrean, gurtziltzatzen kondemnatuz. Hau da, kristauak hasieratik gorrotatzen zituzten juduak, beren mesiasaren heriotzaren errua egozten zitelako. Hori da antisemitismoaren jatorria Europan.

Pogromo horiek modu ezin hobea ziren elite pribilegiatuarentzat, alegia, nobleziarentzat eta kleroarentzat, langile klase nekazariak bere gorrotoa bidera zezan ezberdina zenarengana; hartara, edozein kulpatatik libratzen ziren, eta, gehiegizko zergen bitartez, nekazariak ekoizten zuten uztaren zati handi bat lapurtzen zuten

Erdi Arotik hasi eta antisemitismo fanatikoenaren gailurra izan zen Holokausto nazira arte, juduek era guztietako gaiztakeriak jasaten zituzten beren bizilagun kristauen partetik. Erdi Aroan, Europako antisemitismoaren lehen adibide gisa, judutegiak zeuden, Erdi Aroko hirien barruan juduentzat erreserbatutako auzo harresituak, kristauengandik bereizten zituztenak. Gizarteak uzta txarra, izurria edo beste edozein gaitz jasaten zuenean, kristauak juduei egozten zieten zorigaitz horien errua, eta salatzen zuten deabruarekin bat egin izana. Funtsik gabeko salaketa xenofobo horiek bide ematen zieten populazio juduaren aurkako pogromo, sarraski eta harrapaketa indiskriminatuak. Juduek, inolako babesik gabe, imajina zitezkeen era guztietako umiliazioak eta laidoak jasaten zituzten beren ghettoetan. Pogromo horiek modu ezin hobea ziren elite pribilegiatuarentzat, alegia, nobleziarentzat eta kleroarentzat, langile klase nekazariak bere gorrotoa bidera zezan ezberdina zenarengana; hartara, edozein kulpatatik libratzen ziren, eta, gehiegizko zergen bitartez, nekazariak ekoizten zuten uztaren zati handi bat lapurtzen zuten.

MIGRAZIO JUDUA PALESTINARA ETA ISRAELGO ESTATURA	
URTEAK	MIGRATU KOPURUA
1881-1903	35.000
1904-1914	40.000
1919-1923	35.000
1924-1930	80.000
1931-1939	225.000
1940-1948	143.000
1948-1951	667.613
1952-1967	582.653
1968-1988	532.774
1989-2000	1.039.821

Israelgo Lurralterako migrazioei *aliyá* (edo *aliot* plurala) zeritzen, eta israeldar nazionalistak Palestinako lurra kolonizatzen hasi ziren une horretan. Migrazio horiek progresiboki handituz joan ziren hamarkadak aurrera joan ahala, eta izugarri egin zuten gora Alemaniako nazismoa boterera iritsi eta, 1948an, Israelgo Estatuak sortu zenean.


Sionismora berriro etorrira, Theodor Herzlek, juduek mendetan zehar jasaten ari ziren antisemitismoari irtenbide bat ematearren, *Der Judenstaat* (1896) liburuan, juduen herriarentzat espiritualki garatzeko estatu eta leku baten beharra planteatu zuen. Liburuak Palestinan lurra erostera bultzatzen zituen juduak, pixkanaka lurraldea kolonizatzeke helburuz. Obra horri, hasiera batean, *Rede an die Rothschilds* edo "*Rothschildarrei apelazioa*" izena eman behar zitzaion, bankari-familia handiari erreferentzia egite aldera, eta xedea zen helburu sionista gauzatzeko laguntza lortzea. Azkenik, Rothschild baroiak uko egin zion proiektuari izen hori emateari, bere negozioetan izan zitzakeen ondorioengatik, baina hemen ikusten dugu, lehen aldiz, sionismoak eragin handiko pertsonen laguntza bilatu zuela bere proiektu nazionala gauzatzeko.

Lehenengo *aliyá*, ordea, Herzlen *Der Judenstaat* liburua argitaratu baino urte batzuk lehenago hasi zen. Zehazki, 1881ean hasi eta 1903an amaitu zen, "Sionen maitaleak" izeneko juduen mugimendu herrikoiak bultzatuta. Partaideak, oro har, Ekialdeko Europatik zetozen, eta, nagusiki, garai hartan Errusiako Inperioak menderatutako lurraldeetatik, non pogromoak eta antisemitismoa bereziki basatiak ziren (Europako mendebaldean baino askoz ere basatiagoak). Nabarmenezkoa da europar judu gehienak kontinente horren ekialdean biltzen zirela eta Hungariak, Poloniak, Ukrainak edo Errusiak komunitate horretako populazio oso handiak zituztela. Palestinarren lurretara egindako lehen migrazio hori 1880ko hamarkadako lehen urteetan bultzatu zuen tsarren inperioak astindu zuen antisemitismo olatuak. Olatu hura, neurri batean, Narodnaya Volyak (*narodnikiak*) Alexandro II.a tsarra hil izanak eragin zuen, izan ere juduei egotzi zitzaion, arbitrarioki, hilketa hura. Lehen migrazio hartan sionistek euren lehen hiriak sortu zituzten: Rishón LeZion, Rosh Piná eta Zichron Yaakov, besteak beste.

Palestinaren lurren kolonizazio judua defendatzeko argudio nagusietako bat izan zen "jenderik gabeko lurra" zela. Hau da, Herzlen jarraitzaileen arabera, Palestinan ez zen inor bizi, eta, beraz, zilegi zen lur horiek okupatzea. Aipatzekoa da argudio hori bera erabili zutela estatubatuarrek Ipar Amerikako tribu indigenak kanporatzeko eta akabatzeke, eta hamarkada batzuk geroago Hitlerrek ere erabili zuen Lebensraum teoria eta Ekialdeko Europako eslaviarren kanporatzea justifikatzeko. Ideologia nazionalista horiek guztiek, beraz, kutsu arrazista eta espantsionista bera dute.

1880 eta XX. mendeko lehen hamarkada artean, *aliot* horiek sustatu zituzten Europan izan ziren antisemitismo kasu ugariak, besteak beste, Frantziako Dreyfus Kasuak eta Errusiako Inperioan argitaratu izanak *Siongo jakintsuen protokoloak* (pentsamendu hitleriarrean eragin handia izan zuena).

Gaur egun ezagutzen dugun estatu sionistaren sorrerara etorrira, bi gertakariak ezarri zituzten haren sorrera-oinarriak: Sykes-Picoteko Akordioak (1916) eta Balfourreko Adierazpenak (1917). Biak ala biak daude kokatuta Lehen Mundu Gerraren eta Otomandar Inperioaren gainbeheraren testuinguruan. Lehen Mundu Gerran, frantziar eta britainiar inperioek beren eragina Mediterraneoko Sortaldera hedatzeko aukera ikusi zuten.



Sykes-Picoteko Akordioak britainiarren eta frantsesen arteko eragin-esferen banaketa ezartzen zuen, eta, aldi berean, arabiarrek traizionatzen zituen, izan ere Ententeko potentziek independentzia agindu zieten gerra amaitu ondoren. Britainiarrek Palestina, Transjordania eta Irak hartu zituzten; frantsesek, berriz, Libano eta Siria.

Estatu juduaren auziari dagokionez, gai horri buruzko lehen elkarrizketak egin ziren, eta egia den arren gerraren ondoren sionistei ez zitzaizela desio zuten estaturik eman, aldeko lehen jarrerak ikusten hasi ziren, David Lloyd George Britainia Handiko Ogasun kantzilerrarena, kasu.

**Adierazpen hori benetako
balio juridikorik gabeko
promesa izan zen, eta, jakina,
ez zen bertako biztanle
arabiarrekin kontsultatu,
Europako ikuspegi arrazistak
(baita sionismoarenak
ere) basati eta zibilizatu
gabekotzat baitzeuzkan
arabiarrek**

Urtebete geroago, Lionel Walter Rothschildek (Rothschild bankari dinastia garrantzitsuko handiki judua) eta Arthur James Balfourrek (Atzerri ministro britainiarra) Balfourreko Adierazpena idatzi zuten, gobernu batek Palestinan sionismoaren ideietan oinarritutako estatu bat sortzeko buruz egindako lehen adierazpen publikoa. Londresek hartutako erabaki horrek argi eta garbi erakusten zuen britainiarren borondate inperialista, Mediterraneoko Sortaldean bere aldeko interesen aliatua izango zen estatu bat sortzekoa. Adierazpen hori benetako balio juridikorik gabeko promesa izan zen, eta, jakina, ez zen bertako biztanle arabiarrekin kontsultatu, Europako ikuspegi arrazistak (baita sionismoarenak ere) basati eta zibilizatu gabekotzat baitzeuzkan arabiarrek. Honakoa zen agiri horretan adierazitakoa:

“(…) Maiestatearen gobernuak atsegin handiz ikusten du Palestinan herri juduarentzako etxe nazional bat ezartzea [...], Palestinan dauden komunitate ez-juduen eskubide zibil eta erlijiosoei kalterik ez zaie egingo, ezta beste edozein herrialdetan dauden juduen herritar-eskubide eta egoera politikoari ere.”

Hala ere, bi akordio eta adierazpen horiei beste dokumentu bat gehi dakieke, 1907ko Campbell-Bannerman izenekoa, honakoa dioena:

“(…) Badira hedadura handiak kontrolatzen dituzten herriak (arabiarrek), baliabide ugari, bai agerian eta bai ezkutuan ere, dituzten lurraldeak. Munduko bidegurutzeetan nagusi dira. Beren lurralde giza-zibilizazio eta erlijioen sorleku izan ziren. Herri horrek fede bakarra, hizkuntza bat, historia bat eta aspirazio berak ditu. Hesi natural batek ere ezin du herri hori isolatu, ez batzuk ezta besteak ere [...] baldin eta, halabeharrez, nazio hori Estatu bakarrean bateratuko balitz, munduaren patua bere eskuetan leukake eta Europa mundu osoaregandik bereiziko luke. Gogoeta horiek serioski kontuan hartuta, atzerriko gorputz batek nazio horren bihotzean landatua behar du izan muturren integrazioa saihesteko, gorputz horren boterea higa ez dezaten etengabeko gerren bitartez. Mendealdeak tranpolin gisa ere erabil lezake bere ezkutuko helburuak lortzeko.”

H I S T O R I A

Foreign Office,


November 2nd, 1917.

Dear Lord Rothschild,

I have much pleasure in conveying to you, on behalf of His Majesty's Government, the following declaration of sympathy with Jewish Zionist aspirations which has been submitted to, and approved by, the Cabinet


"His Majesty's Government view with favour the establishment in Palestine of a national home for the Jewish people, and will use their best endeavours to facilitate the achievement of this object, it being clearly understood that nothing shall be done which may prejudice the civil and religious rights of existing non-Jewish communities in Palestine, or the rights and political status enjoyed by Jews in any other country"

I should be grateful if you would bring this declaration to the knowledge of the Zionist Federation.

A handwritten signature in dark ink, reading "A. J. Balfour". The signature is written in a cursive, flowing style. Above the main signature, there is a smaller, less distinct mark that appears to be "Y. in".

Balfourren adierazpena

Gaur egun argi ikusten dugu “trapolin” hura estatu sionista zela.



Sykes-Picot Hitzarmenaren eragin eremuen banaketa

1918an Lehen Mundu Gerra amaitu, eta, 1920tik 1948ra, Palestinan Britainiar Agintaldia ezarri ondoren, Entente-ko potentzia garaileek arabiarrekin nahiz sionistekin (biei agindu zizkieten estatu independenteak gerra amaitzerako) izandako tratuak ez betetzeak azken horien haserrea ekarri zuen. Orduan hasi zen Palestinaren gaineko administrazio nahaspilatsuaren garaia Londresentzat. Dena dela, juduak Palestinara migratzen hasi ziren berriro gatazka amaitu ondoren, eta 1920ko hamarkadan 100.000 judu baino gehiago iritsi ziren administrazio britainiar sortu berrira. Britainiarrek, modu horretan, bi helburu bete zituzten bakararren prezioan. Alde batetik, etorkizuneko estatu juduaren proiektua elikatzen zuten, hau da, euren aliatua izango zen proiektua eta mundu arabiarra eta haien merkataritza bide nagusiak kontrolatzeko bazkide nagusi izango zuena; eta, bestalde, juduak Erresuma Batutik kanporatzea sustatzen zuen (gogora dezagun garai hartan europar biztanleriaren gehiengoa erabat antisemita zela).

Agintaldiko ezegonkortasunaren lehen gorabeherak 1920an eta 1921ean iritsi ziren, Jaffa eta Jerusalem hirietan arabiarrek juduen aurka atentatu bana egin zutenean. Atentatu horiek palestinarren haserrearen ondorio ziren, ikusi baitzuten inposatutako Europako potentzia batek lurrrak eman zizkiela, bere apetaz, kolono europar iritsi berri batzuei. 1929an, beste atentatu batek hemezortzi kolono judu hil zituen Safeden; urte berean, Hebronan, beste 67 judu hil zituzten kolono sionisten aurkako beste atentatu batean. Hurrengo urteetan, palestinarrak britainiarrei eta juduei egindako atentatuak dozenaka burokrata ingeles eta kolono hil zituzten.

Hura izan zen indar paramilitar sionistak sortu ziren unea ere, Haganá (1920an) edo Irgún (1931n), esaterako. Indar horiek 1940ko hamarkadaren hasierara arte ia britainiarren aliatu gisa jardun zuten. Hamarkada horietan egin zuten atentaturik nabarmenena, beharbada, Haganák Jacob Israel de Haan poeta judu antisionistaren kontra gauzatu zutena, azken horrek ideologia sionistari egindako kritikengatik.

1936an arabiar greba orokorra hasi zen. Urtebete baino gehiago iraun zuen agintaldian, eta Arabiar Matxinada Handian iritsi zen une gorenera, 1936ko apirilean hasi eta 1939ko abuztura bitartean. Matxinadak palestinarrak alde batean jarri zituen, eta, bestean, aliantza judu-britainiarra. Altxamenduaren ondorioz, 429 judu, 143 britainiar eta 2.500 eta 5.000 palestinarrak hil ziren (14.000 zaurituz gain; guztira, palestinarren %10ek jasan zuen, modu batean edo bestean, judu-britainiarren errepresio gogorra). Matxinada horren ondorioz, 1939ko *Liburu Zuria* idatzi zen. Liburu horrek, juduen eta arabiarren atseginarekin kontrara, ezartzen zuen Palestinarako juduen migrazioa mugatuko zela urtean 75.000 judutara, eta, aldi berean, lur berriak erostea debekatzeko zitzaien (judu guztiei). Dena dela, 1930eko hamarkada izan zen kolono judu gehien jaso zituena; 200.000tik gora, hau da, ordura arteko kopururik handiena.

Alemanio diktadura faxistaren garaian, juduen pairamena oso gogorra izan arren, sionisten eta nazien arteko akordioak ere egin ziren. 1933ko abuztuaren, Haavarako Akordioa zeritzonaren bitartez, Alemaniako Federazio Sionistak, Leumi Bankuak eta Alemaniako Ekonomia Ministerioak Palestinarako migrazio judua sustatzeko plan bat adostu zuten. Nazien helburuak ziren, batetik, juduak Alemaniatik kanporatzea, eta, bestetik, judu horiek Palestinan lantegiak irekitzea, bertako manufakturak Alemaniara esportatzeko. Itxuraz, akordio horrek iraun zuen bitartean, 1937an, Gestapok armak transferitu zizkion Haganári, Matxinada Handian arabiarren aurka erabil zitzaizuten. Haavarako Akordioak 1938ra arte iraun zuen. Informazio hori berriro baieztatu zen 1957an, Hans Friedenthal Alemaniako Federazio Sionistako presidenteari egindako elkarrizketa batean:

“Gestapok ahal zuen guztia egin zuen garai hartan emigratzia sustatzeko, bereziki Palestinarakoa. Askotan, emigraziorako prestaketei buruzko zerbait behar genuenean, haien laguntza jasotzen genuen beste agintari batzuegandik. Jarrera hori konstantea eta uniformeak izan zen uneoro, 1938. urtera arte.”

Bigarren Mundu Gerra amaitu eta juduen komunitateari buruzko nazien krimen izugarriak publiko egin ondoren, Mendebaldeko iritzia publikoa traumatizatuta geratu zen. Hori, ordea, sionismoak erabili egin zuen bere argudioa indartzeko, estatu propioa eskuratzeko aldera. Britainiar agintaldiko atentatu sionistak gatazkaren amaieran sortu ziren, beren estatuaren sorrera behartzeko asmoz. Atentaturik garrantzitsuenak Irgunek (gaur egun Israelen agintean dagoen Likud alderdiaren aitzindaria) Rey David hotelaren aurka egindakoa izan zen, eta 91 lagun hil zituen.

Gerra irabazi zuten bi potentzia nagusiek, Sobietar Batasunak eta Estatu Batuek, estatu judu baten sorrera babesten zuten, beren interes geopolitikoetarako aliatu potentzialtzat baitzeukaten. Alde batetik, sobietarrek etorkizuneko estatu horrekin aliantza bat sortzeko itxaropena zuten, Palestinara emigratutako ehunka mila judu bertatik, SESBetik, zetozelako. Gainera, judu horietako askok Iraultza Boltxebikean parte hartu zuten eta sozialistak ziren; Stalinek, berriaz, aukera ikusten zuen eremu komunista Mediterraneoko Sortaldera hedatzeko. Bestalde, Washingtonek Mendebaldeko kapitalismo inperialistaren interesei leiala izango zen estatu bat lortzeko estrategia britainiarrarekin jarraitu nahi zuen, mundu arabiarra ezezkortzeko

Britainiarrek, modu horretan, bi helburu bete zituzten bakarraren prezioan. Alde batetik, etorkizuneko estatu juduaren proiektua elikatzen zuten, hau da, euren aliatua izango zen proiektua eta mundu arabiarra eta haien merkataritza bide nagusiak kontrolatzeko bazkide nagusi izango zuena; eta, bestalde, juduak Erresuma Batutik kanporatzea sustatzen zuen



Nazio Batuen Erakundea 1945ean sortu zen, eta Bigarren Mundu Gerrako bost irabazleek (garrantzitsuenek) (SESB, AEBak, Erresuma Batua, Frantzia eta Txina) osatu zuten Segurtasun Kontseilua. Nazio Batuen Erakundeak 1947an ebatzi zuen britainiar agintepeko Palestina bi estatutan banatzea. Biztanleriaren eta lurraldearen banaketa oso desorekatua izan zen: lurraldearen %43 palestinarrei eman zitzairen eta %57 sionistei, lurralde horretako biztanleen ia bi heren arabiarrek izan arren, eta heren bakararra judua.

Banaketa horrekin, sionistak asko poztu ziren, eta arabiarrei, berriz, haserrea eragin zien, bidegabekeriatzat hartu baitzuten. Horrela, bada, 1947ko azaroaren 30ean zatiketa ituna sinatu, eta hurrengo egunean sei hilabete iraun zuen palestinarren eta sionisten arteko gerra piztu zen. Gerran zehar, sionistek AEBen eta SESBen babesa jaso zuten. Hasieran palestinarrek gerran garaile baziren ere, bigarren fasean, eta David Ben Gurionek talde armatu sionistak berrantolatu ondoren, israeldarrek aurrea hartu zuten, eta 1948ko maiatzaren 14an Israelgo Estatuaren independentzia aldarrikatu zuten.

Liga Arabiarrak berehala erreakzionatu zuen eta Palestinaren aldeko gerran parte hartu zuen. Dena den, hainbat arrazoi tarteko (esaterako, batasun taktikorik eza), herrialde arabiarren arteko gatazkek eta Jordaniako erregeak lurralde palestinarrek anexionatzeko zituen ezkutuko anbizioak, palestinarren porrot mingotsa ekarri zuten, 1949ko uztailaren 20an. 1949ko apirilean Lausanan bakea ezartzeko hasitako elkarrizketetan (palestinarrak ez zeuden ordezkaturik) ez zen akordiorik sinatu, israeldarrek inolako kontzesiorik onartu ez zutelako.

Arabiarrak, euren artean, *al-Naqba* edo "hondamendia" izenez ezagutzen dute gerra hori, ez bakarrik lurraldearen galeragatik, baita Israelgo Armada zentralizatuak egindako sarraskiengatik ere. Izan ere, palestinarrei irabazten zien lurralde orotan, herrixkak suntsitu eta biztanleria arabiarra exekutatzen zuen. Guztira 750.000 palestinar inguru bota zituzten beren lurretatik garbiketa etnikoaren indarkeria zela medio. Hurrengo 50 urteetan, Israelek, erabat armaturik, bost milioi etorkin judu hartu zituen, eta mundu osoko gastu militarrik handiena bazuen ere, Estatu Batuen mota guztietako laguntzei esker iraun ahal izan zuen ekonomikoki: edozein herrialdek inoiz beste batengandik jaso duen laguntzarik handiena jaso zuen. ●

**Nazio Batuen Erakundeak
1947an ebatzi zuen
britainiar agintepeko
Palestina bi estatutan
banatzea. Biztanleriaren
eta lurraldearen banaketa
oso desorekatua izan zen:
lurraldearen %43 palestinarrei
eman zitzairen eta %57
sionistei, lurralde horretako
biztanleen ia bi heren
arabiarrak izan arren, eta
heren bakararra judua**

BIBLIOGRAFIA

Finkelstein, N. (2003). *Imagen y Realidad del Conflicto palestino-israelí*, Ediciones Akal.

Fontana, J. (2011). *Por el Bien del Imperio: Una Historia del Mundo desde 1945*. Barcelona: Pasado & Presente.

Martinelli, M. A. (2022). *Palestina (e Israel): Entre intifadas, revoluciones y resistencias*. Universidad Nacional de Luján.

Pappé, I. (2015). *La Idea de Israel. Una Historia de Poder y Conocimiento*, Ediciones Akal.

Sand, S. (2013). *La Invención de la Tierra de Israel*, Ediciones Akal.

Argitalpena
2024KO URTARRILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia




arteka